


anaitasuna

1980.EKO MARTXOAREN ALE BAKARRA 399. 60 PZTA

— Alfabetatzeekin elkarrizketan —

Hator gurekin jakatzen
ELKARRIZKETA BIZIAK

Herriarekin eta herriarentzat.



CAJA LABORAL. *Euskadiko*
Kutxa 

AZKUE BIBLIOTEKA
EUSKALZAINDIA
BILBO

1209

14 ABR. 1980

aurkibidea



3. Aurkibidea.
4. Artikuluburua.
5. Jazz. Lehendabiziko Lizardi Olerki Sariketa.
6. Alfabetatzen. Txantxan.
9. Esperantzari lehioa zabaldu omen diote J.R.B.O.
10. Herrietan zehar ezkerreko lehen indarra.
11. Zentzugabekeria eguneroko ogia. I. Deuna. Euskal Herria laino ilunetan. K. Santisteban
12. Etxahun agur Xuberoa! I. Zabaleta. E. Knör-i gutun irekia. I. Izagirre.
14. Hamabost egun hankaz gora.
16. Frantziako unibertsitateaz. M.J. Esteban.
18. Amerika, Amerika. A. Eguskitza.
20. Crónica del desamor. M. A. Landa.
22. Elkarrizketa biziak.
24. Oskar Kokoschka eta expresionismoa J. Sendagorta. "Bang". Carlos Santisteban.
26. "El Tambor de hojalata" "Euskal Herri Musika". X. Portu.
28. Autodefentsarako bideak. M. A. Landa.
29. Bertso berriak, lemoizeko Zentraleari jarriak. Txepetxa.
30. Wilhelm Reich (III). K. Santisteban.
32. Liburu berriak. J. Sendagorta.
35. Gramatika. J.R. Etxebarria.
36. Atlantida. Iñaki.
38. European etsipenaren aurka askatasuna. Mikel Orrantia.
40. Postaz etorriak.
42. Akrostika. L. Trask.



anaitasuna

COORDINAKETA
J.R. Etxebarria

IDAZKUNTZA
M.Aldana, T. Trifol

IDAZKUNTZA KONTSEILUA
J. Agirreazkuenaga, M. Aldana
A. Eguzkitza, J.R. Etxebarria,
M. Izagirre, J. Llerandi,
J. Sarrionandia, T. Trifol, I. Urtasun
I. Zabaleta

ARABA
K. Mendia

BIZKAIA
J. Llerandi, T. Trifol

GUIPUZKOA
A. Oiartzabal, I. Urtasun

IPARRALDEA
M. Lanatua

NAFARROA
B. Zabaleta, I. Zabaleta

NAZIOARTEKOA
M. Aldana, M.J. Esteban

IDAZLEAK
P. Agirrebaltzategi, J.L. Alvarez, J.
Artzelus, J.M. Artzubiaga, J. Azur-
mendi, F. Alaña, J.J. Bakedano, B.
Barandiaran, J.R. Bilbao, A. Eguzki-
tza, E. Entziondo, J. Etxebarri, J.
Iturbe, M. Kaltzakorta, X. Kintana,
S. Laffite, M.A. Landa, J. Mendiza-
bal, J. Orbezua, M. Otazurialde, M.
Pagola, X. Portu, K. Santisteban, J.
Sarrionandia, J. Sendagorta.

LANKIDEAK
K. Arko, X. Gomez, J. Idigoras, L.
Trask

FOTOGRAFOAK
A. Alday, Imanol, Txaber, R. Zarra-
beitia.

MAKETAPENA
R. Zumalabe

KOMIKIAK
X. Etxenike, Gentz, Monty, B. Zia.

MARRAZKILARIAK
Ttua Taldea

PUBLIZITATEA
ETA
HARPIDETZA
J. Idigoras, A. Uria

ANAITASUNA
Zabalbide 68-entlo. BILBO 6
Tfnoa: (9-4) 433 5808

MOLDIZTEGIA
Estudios Gráficos
lege G.D.L. Bi-1753-1967
PRINTED IN BASQUE COUNTRY



“ZIN DAGIT”

Zazpi lurraldetara Euskadiz mintzatuko
garela zin dagit:

Espainiar komunistak, Euzkotar aber-
tzaleak, Donostiako bontzo traketsa, Fran-
tses zentroko deputatuak, Monzon adore-
tsua, soilik mintzatuko ez direla Euskadiz,
zin dagit.

Baskotasun saiatsua, UCDko Viana,
Merkatal Ganbara, Bilbo Handiko por-
tuaren superjabea elekatuko ez direla
soilik Euskadiz, zin dagit.

Espainiako errege (a) (a) (a), Euskaltza-
legoaren lehendakariak, Euskadiko kutxa
guztiak, Euskadi guztietako kutxak, arte-
tzat, lanedertzat, hartzen diren ilusio guz-
tien errepresentagailu dirudun eta bizidu-
nak ez direla soilik eta lehendabizikoz Eus-
kadiz mintzatuko,... zin dagigun.



1.980ko Uztailak 23 - 27

Euskal Herriko Talde Jazzaleen Lehiaketa (Uztailak 25ean)

Jazzaldiaren barne, aurten jazzaleentzako lehiaketa eratzen da, Euskal Herria muga daukalarik, honako Araudiaz:

- 1.a Euskal Herrian bizi diren lagunek osaturiko jazztaldeak partaide gerta daitezke.
- 2.a Lehiaketan bost taldek hartuko dute parte.
- 3.ª Jazzez beren ogibidea ez daukaten talde guztiak —edozein motatan, edonolako joeraz— aurkez daitezke. Berorien artean. Epai Mahaiak bereizketa egingo du.
- 4.a Talde baten musikari batek nahiz gehiagok beste talde batetan parte hartzea ez du Antolakundeak onartuko.
- 5.a Ekitaldiaren luzapena Antolakundeak erabakiko du, eta alde zuzenetik partaideei komunikatu zaie, nahiko astirik izan dezaten.
- 6.a Partehartzaile diren taldeek gastutarako dirurik jasoko dute, taldearen lagunaren kopuruaren araueraz.
- 7.a Epai Mahaiaren erabakia gaitzestezina izango da, harek nahi hainbat erabaki har dezake larrik.

8.a SARIAK: -Lehenbizikoari 15.000 pta. eta trofeoa
-Bigarrenari 10.000 pta. eta trofeoa

9.a INFORMAPEN ETA IZEN EMATEAK

“JAZZALDIA”

Kultur eta Turismorako Ekintzotxea
Reina Regente, z/n
Donostia

Epearen bukaera: Maiatzak leian

Parte hartzearen eskakizunarekin batera zera bidaliko da: nahita ez, behintzat, taldeak grabaturiko zinta bat, eta taldearen kalitatea adieraziko lukeen edozein gai (iragarkiak, diskak, e.a.)

10.a Antolakundeak, honela erabakiko baleza, Araudi honen edozein aldaketa egin dezake.

LEHENDABIZIKO LIZARDI OLERKI SARIKETA

OINHARRIAK

Hizkuntza: Euskara

Gaia: Librea

Mailak: 1) 14 urte arte
2) 15 urtetik 18raino

Neurriak: 14 urte arteko mailan gutxienez 15 lerro olerki bakoitzak.
15 urtetik 18rainoko mailan, gutxienez 25 lerro olerki bakoitzak.

Lanak bidaltzeko epea: Apirilak 30.

Lanak ikastegiren bidez bidali behar dira, makinaz idatzita, folio neurrian eta lau kopia.

Alderantzian egilearen izena, adina eta helbidea, eta bere ikastegiaren izena eta helbidea jarri behar da.

Lanak LIZARDI KULTUR ELKARTEra bidali

Nagusi kalea, 7
Tolosa

Estalkian, Lehendabiziko Lizardi Olerki Sariketa jar

Ikastegi bakoitzak bere ustez maila bakoitzako 5 olerki oberenak, bidaliko ditu.

Sari banaketa: Maiatzak 30

EPAIMAHAI: 3 Epaimahaiko - Xabier Lete

Andu Lertxundi

Mª Karmen Garmendia

Sariak: 10 sari maila bakoitzean.

Antolatzaile: Lizardi kultur elkarte - Tolosa

Saritutako olerkiak argitaratzeko, Lizardik ahal egingo du.

Tolosa, 1980ko Otsaila.



ZIENTZIA SOZIALEN EUSKAL ALDIZKARI

* * *

Zuzendari: Antton Iburguren, jurista.

Idazkari: Karmelo Arroiabe, soziologoa.

* * *

1980. go lehen zenbakiaren gai nagusiak:

Mikel Navarro: Euskal Hazienda Estatutoan.

Beltza: Nazioa eta Estatu.

Antton Iburguren: Fueroen muina atzo eta gaur.

Xabier Iturpe: Domeinua eta sabotajea.

Aurelio Santisteban Cimarro: Esperientzia iraultzaileen iratzartze geldoa eta burokrazia irentzaileen gau lanbrotzua.

Itziar Urtasun: Sexua eta boterea.

Patri Urkizu: Zenbait ohar literaturaz eta politikaz.

* * *

Salneurria: ale bakoitza 250 pta.

Zabaltzaile: J.F. Jaka (Bilintx liburudenda). Fermín Calbetón, 30. DONOSTIA. Tel.: (943) 420930.

ALFABETATZEN

E.A. koordinakundeak kurtso honen hasieran antolatu zituen ikastaroetan parte hartu genuenok, oso harritu ginen ikusi genituen aurrerapenengatik, bai didaktika arloan, bai ikastaroetan erabilitako metodologiagatik ere. Hizkuntzen irakaskuntzan oso maila errespetagarri bat lortu dela diokegu batere beldurrik gabe.

E.A. koordinakundekoei elkarrizketatxo bat egitera joan gintzaizkien Deustuko lokaletara, eta egin ere, baina maiz izan genuen suete txarra zein gure magnetofonoan elkarrizketaren ordez "Los 40 principales" grabatu baitzuen euskal sasikazetari-azkarkeria...

Deustuko Avda. Madariagan daude E.A.K.aren lokalak. Karamol eskailerak igo eta bertan dituzue beste batzuren artean Kalzada, Naberan, Gabika, Josejua, Jabi, Zeles. Oso jende langile eta prestua.

Bertan egindako elkarrizketaren laburpenak jarriko dizkizuegu.



Julen Kalzada harrapatu genuen lehenengo. E.A.K.aren lehen pausoetatik orain arte ibilitakoa, labur azal ziezaigun eskatu genion.

ANAITASUNA.-E.A.K.ren lehen urteetako bereizgarriak kontatuko dizkiguzu laburki?

J. KALZADA.-E.A. mugimendua dakienez, 1968ean sortzen da. Une hartako ahaleginen arduradun edo bultzagile be-



tzen da. Euskara irakasteak beste edozein hizkuntzetan bezala, didaktika eta metodologia berezi baten eskuratzea eskatzen du. Euskara hainbat lasterren edertoen ikasi nahi da... gau eskoletan irakasleak, prestakuntza egoki baten beharrez jabetzen da. Euskara irakasteak beste edozein hizkuntzetan bezala didaktika eta metodologia berezi baten eskuratzea eskatzen du.

Ikaslen kopuruaren aldetik ere zer esan daiteke, azken urteetan ematen den gora-kada, handia dela.

Erribera aldean ere talde ugari dago, ez bakarrik Olite, Tafalla, Tudela eta Herri haundietan, txikietan ere. Nafarroako arduraduna hestu eta larri ibili da eta irakasleak liberatu behar izan dituzte.

zala R. Arregi aipatu behar dugu. Urte haietan euskararen burruka, erreibindikapen politikoekin lotuago agertzen zitezagun eta "Herri gaztedikoen eman zioten alfabetatze kanpainari bizitasunik handiena.

Gero 70-75. Inguruan E. Alfabetatze batzordea eraikiko da. Euskalduntzen metodoa lehenengo eta gero alfabetatze-ko sortzean, laguntza handikoak bilakatu dira, gau eskoletan eta abar asko erabiliko baitira.

76.ean B.E.A. koordinakundea sortzen da... gau eskoletan irakasleak, prestakuntza egoki baten beharrez jabe-

A.-Konta egizu E.A.K.ren koordinakunde eskualde eta herrialde mailan.

J.K.- Eskualde mailan bi urte dira Bizkaia hamabi eskualdetan banatu zela: Bizkaia, Ibarrekerra, enkarterria, meatzeta, Bego Urbe-Aiara, Urbe Kosta, Txorierri, Arratia, Durangaldea, Busturialde eta Lea-Artibai.

Bakoitzean arduradun bat dago eta batzutan, indartsuenetan ba dira liberatuak ere, hau da euskarari erabat dagoen katutako jendea.

Normalean, eskolan ematea bigarren lana da eta honek akatsik franko dagoen kigu.



Koordinaketa herrialde mailan ere egiten da; Altsatsun egin izan dira bilerak eta ipar Euskal Herriko ordezkaria, hego-ko lau probintzietakoekin biltzen da.

E.A. kanpainak indartuz doaz, adibidez Iruñean, Bilbon beste ikasle dago, Iruñea txikiagoa izanik. Erribera aldean ere talde ugari dago, ez bakarrik Olite, Tafalla, Tudela eta Herri haundietan, txikietan ere. Nafarroako arduraduna hestu eta larri ibili da eta irakasleak liberatu behar izan dituzte.

Euskalduntzen ari direnentzako batetik eta alfabetatzen dihardutenentzako batetik.

Euskaldun berrientzako oinarriko euskara mailakatu beharko litzateke metodoan erabiltzen diren egiturak, aditza e.a. bilduz; I. maila, batetik, 2a bestetik...

Alfabetatzen daudenentzat problema ez legoke egituretan, euskaldunak nahiko ondo egiten baitu joskera, baina hizkuntza erraztu, atsegindu beharko genuke elkarrizketa arruntetako egiturak eta hi-



bezain laster, irakasle talde prestatuen beharrezana ikusten genuen orain urte eta erdiko ikastaroaren ondoren, hizkuntzen irakaskuntzaz diskutitu eta zerbait egiteko asmoa genuenok, Billaroko Sakramentinoetan bildu ginen, Mendigurenegaz, eta kokoa jan zigun.

Hastapenak pixka bat zailak egin bazitzaizkigun ere, laster hasi ginen materialak eta bide posibleak asmatzen.

JABI.- Orain, irakasle berriak datozkigunean gutxienez ba dauzkate geuk prestatutako gauza batzu.

A.- Irakasleengan ardura gehiagorik narbaritzen da?

JABI.- Bai, askoz obserbatzailegoak dira, eta dedikazio gehiago ikusten da. Dena dela, talde didaktikoa eta irakasle arrunten artean muga edo urruntasun antzekoa dago, beraientzat irakastea lan sekundarioa baita.

A.- Josu, azken urteotako euskararen didaktikaren historia edo bilakaera azal diezagukezu?

JOSU NABERAN.- Beno, batez ere, hiru epe handi bereizten ditugu hasiera bate-tako metodoak (1940.ean) —nolabait esateko metodo tradizionalak—, abiapuntu-tzat hizkuntza idatzia dute, mintzatua bigarren mailan geldintzen delarik eta hizkuntza hila eta bizia ez dute elkarrengandik ezberdinduko.

Gero metodo zuzenak ditugu; hauetan hizkerari lehentasuna ematen diote eta hilen eta bizien banaketa egingo dute.

Lehen urteetan hizkuntza standard baten finkatzera joan izan gara. Baina fonetika arloan, euskara mintzatuan, oinarri tinkoago bat lortu behar da. Araudi orokorrak bete eta leku bakoitze lokalismoak.

Arabako ugaltzea duela hile batzuetako anaitasunaz aztertzen zen.

Gipuzkoan jende kopuru handia ari da euskalduntzen ere, baina koordinaketa ez dago hain zentralizatirik.

A.- Oinarriko euskarataz, zer esango zenuke?

J.K.- Arlo honetan, asko egin behar dugu oraindik. Koordinakundeak, egunkari eta aldizkarien hutsuneak bete nahian edo, ikasleen KZ atera du, arazo honi aurrea emateko asmoz.

Dena dela nik bi eratako oinarriko euskara dakusat:

tzak erabiliz.

Euskal aldizkariak oinarriko euskara. Gehiago erabili beharko lukete. Idaztea normalean denbora problema izaten da. Nik denbora dudanean bigarren idazketa bat egiten dut, esaldiak zatitu eta errazteko.

Gero talde didaktikoengana jotzen dugu. Eztabaida bizian aurkitu ditugu. Hiru partaideekin elkarrizketa hau eduki genuen.

A.- Noiz sortzen da talde didaktikoa?

Josejua.- Profesionaltze premia, aspaldidanik ikusten zen; E.A.K.a muntatu zen



1955-1960. Inguruan entzun-ikusteko metodoen sorrera dugu. Lehen belaunaldian irudiari ematen zaien lehentasuna, beraz, kontzeptua irudi batez dator, ez da itzultzen. Bigarren Garai batetan hizkuntza egoera batetan azaltzen da. Iru-diak ere bere garrantziaz dirau, baina mezuaren barruan murgildurik datozen aspektuak kontutan hartzen dira; hala nola emozioa, sentimendu, mugidura... metodo situazionalak egoera errealek ekarriko dituzte klasera. Hortik datoz guk sortu ditugun materiale osagarriak.

A.- Koordinakundetik metodoren bat edo beste gomendatzen duzue?

JOSU NABERAN.- Ez, irakasleak aukeratu behar duela uste dugu, bakoitzaren aportazioak metodoa hobatu egiten baitu. Oso garrantzitsua da hor-han-hemendikako esperientziak bildu eta taldekako plangintzak egiten joatea. Maila bakoitzeko irakasleak bildu eta eragozpenak aztertu kurtsoan zehar lan eginez.

Honetarako, ariketa osagarriak eta urraspideen orientabideak har daitezke. Dena dela adinekoen irakaskuntzan, Bizkaian, jalgi hadi eta hitz egin erabiltzen dira batez ere.

A.- Eta euskalkien bereizgarriak, kasurako Bizkaierarenak, kontutan hartzen dira irakasteko orduan?

J. NABERAN.- Lehen urteetan hizkuntza standard baten finkatzera joan izan gara. Baina fonetika arloan, euskara mintzatuan, oinarri tinkoago bat lortu behar da. Araudi orokorrak bete eta leku bakoitzeko lokalismoak.

Josejua.- Dena dela, euskalkien arazoa zailtasun handikoa da. Konturatu Bilboko "euskalkia" erdara dela.

A.- Ez zaizue, kultura edukiak sartzeko programazioaren bat egitea bururatu?

J. Naberan.- Oraingoaz ikasleen KZ.tan erabiltzen diren gauzetatik at ez dugu ezer programatu; alfabetatzeko lehen mailan sartzen da historia e.a.

Josejua.- Bestalde lan hori idazle eta kritikari literarioena izan beharko litza-teke.

A.- Zer diozue antolatu dituzuen azken ikastaroetaz?

- Hila bete t'ardi guztiz lanpetuta ibili gara, toperaino 17 ikastaro egin ditugu eskualdez eskualde... Algorta, Gernika, Durango, Basauri, Bilbo...

A.- Ihaz ere antolatu zenuten bat, ezta?

JOSEJUA.- Bai, baina ihazkoa ikastaro klasiko bat izan zen, hitzaldia edo rolloa bota eta gero "Ruegos y Preguntas".

JULEN.- Aurtengorako, planteiamendua aldatu genuen; hitzaldien ordean, talde-taldekako debate eta lanen bidez egitea pentsatu

zen. Eta halaxe izan da. Presentazio labur baten ondoren, taldeak batzen ziren eta gero, talde guztien bileran konklusioak ateratzen ziren. Adibidez, gai bat istorio mutuena zen. Guk, azalpen labur bat egin, eta, taldeka aztertzen zen istorioa, arazoa burutzeko bakoitzak bere baliabideak zerabiltzan. Istorioa edo gai landu eta gero bateratu egiten ziren ideiak.



A.- Zeintzu gai erabili dituzue?

JULEN KALZADA.- Ba, batetik txoke eskola edo deitu duguna, hau da hizkuntza ezezagun batez, —Ingelesa edo beste batez— klase bat, irakaslea, ikasle bezala egonez, euskarazko ikaslearen egoera hurbil dadin.

Gero entzute eta ikuste ariketak, kontzentrapena... eta bestetik, edozein metodorentzat baliagarri diren materiale osagarriak; istorio mutuak, istorio amaigabeak...

A.- Eta talde didaktikoaren helburuak...?

JOSEJUA.- Oraindik sartu gabe dauden tresna batzuen —Erretroprotektorea, flanelograma eta abarren— posibilitateak azterzea.

JABI.- Audiobisualen arloa ikertu eta goimailak, 3a eta 4a, aztertu. Mintzapraktikako kanpaina baten beharrezana ikusten dugu, bertatik irakasleak sortuko bailirateke lan handia dugu didaktika arloan.

ALBERTO GABIKA dugu Bizkaiko alfabetazearen arduraduna.

A.- Kaixo Alberto. Lehen alfabetatzerako, Kurtsoa bat egiten genuen eta kito, orain ba dirudi mailakatuegi dagoela.

ALBERTO.- Bai, leku batzuetan hiru edo lau maila egiten dituzte. Guk koordinakundean maila bi eratu ditugu: Hasera-

koa, Bizkaieratik euskara baturako bat bezala kontsidera daitekeena eta bakuntzakoa, D titulua ateratzeko eskatzen diren edukien gainetik dagoena; ratura, euskalkiak e.a. Lekeition ihaz tolatu genuen ikastaroan erraz ateraten D titulua.

A.- Alberto, "Alfabetatzen" metodoa erabiltzen da?

ALBERTO.- Guk uste dugu ezetz, gure batzuetarako agian, bai, baina tokian tokiko apunte eta materialeak erabiltzen dira. Hauetako materiale batzuk bilbatu behar dira, hasiak gara eta "urraspide" batetan erabiltzeko rako ditugu.

A.- Ikastaroetan D mailarako prestatzen da jendea?

ALBERTO.- Ez, gure ikastaroak ez dira jendeak, D. Titulua atera dezan. Titularen jendearen problema da. Gure kasuak irakastera eta jendea alfabetatzen goaz. Titula, gizarte burjesari ordaintzen zaion zerga bat da.

A.- Amaitzeko, zer behiago esango zenuke?

ALBERTO.- Nik uste dut alfabetatzea sakon bat egiteko, gauza asko behar dela. Sarritan euskalduntzeko erabilgun propagandak berak ba darama kontraesana. "Euskara gabe ez da Euskadirik" eta esaten dugu, baina X. mendeko euskaldun alfabetagabeak ez goaz oso urrum. 1980. Urtean bizi dugun gizartearen beharrezan erantzun behar da. Ezin dugu euskaldun alfabetatua behar izan; eta horretarako alfabetatze programak sortu eta kanpaina indartsuak antolatu behar dira, bai, baina, askoren pentsatzeko era aldatu beharra dugu ere.

Azkenez Zeles kanpaina behar da berruz bururatu jeneralizatu batez garrantziaz mintzatu behar da. E.A. Euskararen erabilera maila altu batera eraman behar da. Nahiko interesgarria ikusteko da, esate baterako, Bilbon bertan bertan euskaldun batzuk ikasten diren ikasleak euskara egitera jeneralizatu daitezke.

E.A.- Koordinakundearen harremanak buruz, egun dagoen eztabaida azalduz, gure pixka bat. Dakizuenek E.A.K. erakundearen erakunde bat da. Eta erakundearen notan C.G.V. ren erakunde iza tera pentsatzeko asmoa dago...

ESPERANTZARI LEHIOA ZABALDU OMEN DIOTE

Momentu honetan, Gau-eskoletako giroa ez dago bat ere lasai, eta arrazoia, Eusko Kontseilu Nagusiak arlo honetarako prestatu duen aurreprojeitu baten eztabaida da. Aurreprojeitu honetan, darorren ikasturterako planketa minimo bat dator, gaur egungo Alfabetatze Euskalduntze Koordinakunde bertan sartzea proposatuz. Eskualdeetara oraintsu banatua izan den Aurreprojeitu honen aurkezpena, Otsailaren 9an, goizeko 11tan izan zen, Bilboko Udal Bibliotekan, mahai-inguru baten bitartez.

Mahai-inguruan parte hartu zutenak hauk ziren: Euskaltzaindiatik San Martin eta Uribarren, Eusko Kontseilu Nagusitik Odriozola eta Amatiño, Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundetik Kalzada eta Urresti, Aurreprojeituaren egilea Txabarri, eta moderatzaile bezala Agirresarobe, hau ere Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundekoa. 150-180 pertsona bildu ginen han, gehienak gau-eskoletako irakasleak.

Ez da nire asmoa mahai-inguruaren berri zehatzik ematea, baizik eta han gertatu zenaren nire eritzi personala.

Lehena hitz egiten San Martin izan zen, Euskaltzaindiak honi buruz daukan eritzia azalduz, eta gero Kalzadak, kritika global bat egin zion aurreprojeituari, eta lehen momentotik ikusten zen han bi bando zeudela. Halako batetan, Kalzada bere kritika egiten ari zela sartu zen San Martin, interbentzioa moztuz eta haren kontra agertuz; gauza da, bai etena egiteko formagatik eta bai erabili zuen tonogatik, ba zirudien la mahai-inguruaren amaituko zela, eta guztiok irtengo ginela handik elkarren kontra eta banatuta. Banatuta diot, zeren mahai-inguruaren hasi baino lehen batekin eta besteekin hitz eginez, entzun nuen halako zurrumuru bat, Alfabetatze Euskalduntze mobimendua han banatuko zelari buruz: batzuek Eusko Kontseilu Nagusian sartuko zirela besteek kanpoan geratzen ziren bitartean; beraz, hainbat urte, ondo ala txarto baina elkarrekin egon garerok han erdibituko ginela.

Dena dela, mahai-inguruak aurrera egin zuen, eta han entzun zirenak, benetan, gogorak izan ziren. Aipatzeak ez du, ez da penarik merezi ere, zeren gehienak erdi egiak izan baitziren. Hala eta guztiz ere, gitxi gitxika, joan ginen ikusten. Gehienak borondate onez joan ginela hara. Egindako salaketa gogorak po-

lliki polliki argitu ziren, eta ikusi genuen nola ez ziren egiak guztiak, baina hori bai, denak izan zirela intentzio txarririk gabe esanak. Eta hau nola uler daiteke? ba, hona hemen nire ustea: zerbait egiten dugunean eta ona ala txarra den jakin nahi dugunean, geure espilura jotzen dugu, eta galdetzen diogu, nor da hemendik politena?, eta espiluak, noski: zeu. Era berean, guk egindako zerbait eztabaidatu edo kontrastatu nahi dugunean, ba dirudi, beti kontsultatzen dugula gure kideekin, gure ideia berdinekoekin, eta normala den moduan, beti ematen digute arrazoia, geure buruarekin hitz egingo bagenu bezala delako. Narzismoa hutsa.

Honela han, beste bandokoak eztuzenez, ikusten zen inork ez zuela arrazoi osoa, eta benetan gogoia izanez gero, nola argi daitezken gauza asko. Azkenean denak eman zuten amore, apur bat baino ez bazen ere, eta giroa asko baretu zen. la hirurak ziren eta amaitu beharra zegoen, gauza asko airean geratzen zirelarik.

Esan daiteke, esperantzari lehioa zabaldu omen diotela. Hara joan ginen Alfabetatze Euskalduntze mobimendua- ren heriotza ikusiko genuela pentsatuz, hau da, hura izango zela mobimendua- ren banaketaren agerpen publikoa uste izanda, eta irten behintzat, ez ginen horrela egin. Argi dago harelako asko egin behar direla, gure posturak hurbiltzeko, eta bestea entzuteko, ea aurreprojeitu honi enmienda on batzu sartuz, denontzat onargarria den proiektu bat ateratzen dugun, Koordinakunde salbatuz. Hainbat urtetan elkarrekin egon garerok, ba dirudi oraindik elkarrekin segitzeko aukera izango dugula. Beraz, esperantzak zutik dirau.

J.R.B.O.
Bilbon, 1980-2-12

JAKIN

EUSKAL KULTUR
ALDIZKARIA

—hiru hilabetero
ateratzen da—

Hamairugarren
zenbakiaren
gai nagusiak:

NAZIO-ARAZOA
SOVIET BATASUNEAN

ZAITEGI ETA
EUZKO- GOGOA

1979.eko EUSKAL
LIBURUAK

1000 pta. urtean.
300 pta. alea

Eskabideak eta harpidetza:
JAKIN aldizkaria

Ategorrieta hiribidea
(lehen Gral. Mola),
23, 1ª, 2sk.

DONOSTIA San Sebastián
Tel. (943) 27 17 13

HERRIETAN ZEHAR EZKERREKO LEHEN INDARRA

MARTXOAK DU HAMAIKA
TA NI HEMEN NATZA
LURREAN TUNBATUTA,
HAU DUK HAU MARTXA!
ELEKZIUAK JOAN TA
BURUA EZIN ALTXA,
IDEIAK NAHASTUTA
NUMERUEN SALTSA,

BOTUEN BELARTZA
JAUNTZOEN BARATZA,
HEMEN DAGO HATSA
ARDO BAKO MAHATSA,
ORAIN DENAK "BASKOAK",
HAU DA TUMATXA.

J.R.B. Otaola.

E.E. 12.000 botu gehiago.
H.B. 4.000 botu gehiago
E.A.J. 76.000 botu gehiago

BIZKAIA

BARAKALDO	PSOE
BALMASEDA	PSOE
DURANGO	H.B.
GALDAKAO	H.B.
GETXO	H.B.
GERNIKA	H.B.
LEIOA	H.B.
ONDAR	H.B.
PORTUGARATE	PSOE
S.S. DEL VALLE	PSOE
SANTURTZI ZAHARRA	PSOE
SANTURTZI ORTUELLA	PSOE
SESTAO	PSOE
ZORNOTZA	H.B.

GIPUZKOA

ANDOAIN	E.E.
ARETXABALETA	H.B.
ARRASATE	H.B.
AZKOITIA	E.E.

AZPEITIA	E.E.
BEASAIN	H.B., E.E. (1)
DEBA	E.E., H.B.
DONOSTIA	H.B.
EIBAR	PSOE
ELGOIBAR	H.B.
ERRENTERIA	PSOE, H.B.
HERNANI	H.B.
IRUN	PSOE
LEGAZPIA	E.E., H.B.
OÑATE	H.B.
ORDIZIA	H.B., E.E.
PASAIA	H.B.
SORALUZE	H.B.
TOLOSA	H.B.
URRETXU	PSOE, E.E.
ZARAUZ	E.E.

ARABA

AMURRIO	H.B.
LAUDIO	H.B.
GASTEIZ-VITORIA	PSOE

(1) Bataz besteko ezberdintasuna ehun botu baino guttiago denean.

EUSKAL HERRIA LAINO ILUNETAN

Hauteskunde garaian egon garela eta, gaurko gizarte kontsumista honen zentzugabekeriak aritu nahi nuke artikuluxka honetan, "iraultzaren maisuak" (mitinariak, alegia) honetaz aritu ez direlakoan nago eta.

Ihateriak amaitu badira ere, beste era bateko ihateriak hasiak izan ditugu: eusko parlamenturantzko bidean dagozenak hain zuzen ere. Edozein herritako kaleak kolorez jantziak agertu zaizkigu. Urtean zehar sekulan ikusi ez dugun "mugimendua". Eta ni, iraultzaren profeta ez naizenez gero, sasimugimendu horren kontra agertzen naiz argi eta garbi, urtean zehar eta baseko mailan ezertxo ere egin ez dutenak oraingo honetan denon askatzaile bihurtzen baitzaizkigu. "Ezkerrakoak" beraiek ere sartuta daude ihauteri hauetan eta ikusitakoa ikusia ez du ematen aldaketarik izango denik. Botererantzko marathoi itsu honetan denok daukate dortsalerik, koloreak ezberdinak izan arren.

Eman Zesarri berarena eta gera daitezkeen basean militanteak ez direnak! Militanteak konszienteago direlako gauza politikoago egiteko erabili behar dira. Azken batez, eta hau ahaztueezinezkoa da, iraultza gizarte honen transformazio osoa da, eta horrexegatik basekoa. Goi-koan ez dago transformaziorik, desagertzetik baino. Euskal Herrian kapitalak

prestatzen dagoen "Birkonbertsioaren" kontra jotzeko oso eritzi gutti entzun dira. Ba liteke inportanteena produkzioa NORK kontrolatzen duen izatea, ZER-
produzitzen den eta ZERTARAKO balio-
ko duen kontutan hartzeke. Inguru honetan sartu beharko litzateke Lemoizeko asutoa. Baina honetaz eta alderdiek hartutako jarreraz asko mintzatu da eta argi dago. Nahi duenak ikus dezala! Eguneroko prentsa hartu eta hortxe dugu sistemaren zentzugabekeria:

- Coca Colak adierazi egiten du bere produkturen bat aldatuko duela eta momentuan mundu desarroilatu honetako hainbat moltsa dantzaten hasten dira. Eta berdin gertatzen da Afrikako bazterretan gerra pizten dutenean: Zaire, namibia... hango errekurtsioak direla medio. Edota Ekialde Hurbila, Hegoamerika... Hauxe bai progresua!

- Italian lege antiterrorista dela eta, hango erradikalak (hauetaz oso gutti dakigu hemen) hamar ordu bana ari ziren berbatan parlamentuan, eta bitartean besteak lota.

Ez eta legalki ere ahal du legeak berak sortzen duen zentzugabekeriarekin amaitu.

- Gartzelarako Zuzendaritzak adierazi duenez (EGIN-Otsailak 22) 60.000 milioi

pezeta behar dira gartzela berriak eraikitzeko Estatu osoan; kontutan harturik 1984.erako (Beltzaren liburua ez ote dute irakurri?) 25.000 preso izango direla (gaurregun 15.000 inguru omen dagoz). Kontuak atereaz gartzela normaletan bi milioi kostatzen da preso bakoitza urtero eta hiru milioitik gora gartzela berezietan.

Nik politikoki guztiei galdera hau egingo nieke:

60.000 milioi pezeta hoiekin ez litzateke posible izango gartzela guztiak betiko desagertu erazteko bidetik ibiltzen has-teko?

Ez dut haiengandik erantzunik espero, ilusioa aspalditik galdua daukat eta.

Eta bukatzeko, Sastrenen "Gillen Tell-ek begiak triste" izeneko liburutik hartuta esaldi bat:

"Geu ari gara gartzelak egiten. Harriak ez ditugu guk jartzen, baina geuk egiten ditugu. Ba dakizu zelan? Isilduz".

eta bestea:

"Adreilu hoiekin etxe eta eskola pila bat egiteko modua zegoen".

Eta agur esaten dizuet P.N.V. ren balea ikusten dudan bitartean.

Iñaki Deuna.

ZENTZUGABEKERIA: EGUNEROKO OGIA

Hemen nago, gaude, munduko baztertxo batetan.

Hemen Estatuko bazter batetan.

Hementxe, Karrantzan, nago ni Euskal Herriko bazter —ez hain bazter— batetan. Eta hemen ere, neure etxeko zokotatik baztertuenean nago ni. Neure etxeon berton bazterturik.

Laino izugarria agertu da goizaldean haranaren estalki. Baina lainoa desagertu heinean, eguzki-izpien bidean oztapatzen da gizonaren lainotzarra.

Baserritarraren bizimodua ezagutzen duenak, ba daki honi zein gutxitxo gus-tatzen zaion galerazia izatea eta gezurturik izatea. Ba daki zein gogorra den haren bizitza. Baserritarra oilaritearen adiskide min-mina da. Ez du atsegin eguerdiko kukurururik. Ez zaio laket azken arduko oilarra.

Egunotan, bai Euskal Herri osoan eta bai Karrantzan ere, denak agertzen zaizkigu soinu ederrenen kantari. Denek daramate ostadarraren koloretasuna al-tzoan, eta emango omen diote herriari kolore guztiak nahastetik sorturikako zuritasun argia.

Nik, aldiz, ez dut ostadarrik ikusten. Ezta koloretasun izpirik ere. Dena ilun dago, oro laino izugarri.

Duela gutxi heldu zitzaigun Leizaola, "zuen lehendakaria" (nirea behinik behin ez da). Oso pozik karrantzara etortzearen, hemendixe joan baitzen "eusko gobernu" atzerrira 1937.ean, Bilbon erori eta gero. Baina poztasun hori aditzera emateko mitin bat behar. Argi eta garbi dago noren mitina.

Gero etorri dira ere Euskadi Ezkerrakoak eta Herri Batasunakoak. Bi kasutan, badaezpada, argikiro esanez Karrantzan normala dela euskara ez jakitea, eta ezin dela euskara inposatu. Politikook!, trankil egon, ezin da ezer inposatu. Era polita benetako errealitatetik ihes egiteko!

Pasatu dira ere PSOEkoak globoak eta boligrafoak banatzen. Gero ez dakit nor etorriko den...

Eta nik, neure zokotxotik, diotsot neure buruari: "Jadanik hemen trankil egon ere ez. Satorraren bideari jarraitu beharko diok lasaitasuna gura baduzu".

Benetan, hitzontzien erran-merranek guttiz izorratzen naute. Esango banie nik alderdiren baten partaideei hona etortzeko urtearen edozein egun batetan haurorik-hauzo abertzaletasunaren eta independentismoaren eta... abarren esanahia azaltzeko, bat baino gehiagok esango luke: "zertarako?"

Nik (agian tontoa naizelako-edo) ez dut ezer ikasten mitinetan; zimarkuak sartzea ez bada... Eta barre eragiten naute esaten digutenean: "Zeuek erabakitzen duzue, zeuek daukazue hitza".

Zalantzak baldin badira, zera esango dut: Euskadi (Zazpi probintzia) euskaldun, independente eta komunista (jende asko beldur da "komunista" esatearen, eta "sozialista" esaten du. Egia esan, gauza bera dira. Oraindik burgesiaren prejuizioak daukatentzat izan ezik.) baten alde nago, baina ekintzak maite ditut eta ez kezko hitzak.

Erdal Herria lainotan dago.
Euskal Herria laino ilunetan.

Karlos Santisteban

Nafarroan omenaldia ETXAHUN AGUR XUBEROA!

"Agur Xiberua, bazter güzietako xokhorik eijerrana..." Agur Etxahun, bazter güzietako haizerik eijerrera. Iruñean, martxoak 1, Xiberua eta Nafarroa senidetu ziren, lokarri izan baikenuen Iruiko Etxahunen omenaldia. Iparla elkartearen eskutik.

Gayarre udal Teatroan emozioaren dardarra eta ezkutuko malkoa aieratu ziren Etxahuni egin zitzaion omenaldian. "Mila esker" "eskerrik anitz" besterik ez zitzaion etortzen hitzetik hortzera Felixiri, Iruiko koblakariaren alarguntsari.

Jendez josia zen teatroa: zahar eta gazte, euskara ikasten ari den nafar asko, eta herrietakoak ere; zenbait ere bertaratu zen Gipuzkoatik eta beste herrialdeetatik. Baina Xuberoa eta Nafarroaren eguna zen batez ere, Ipar Euskal Herri eta Nafarroaren eguna, baztertuena, ahanztiena...

Eta jaialdi osoa euskaraz izan zen, eta inor ez horretaz harritu, eta inork ez zuen "faxismo linguistikorik" aipatu, eta Euskal Herri osorako gidari bihurtu zen omenaldi hau. Nafarroatik dator berria: euskara dela herriaren gogoia, euskara iraultzail dela, "zü ützi geroztik, bizi niz trixterik".

Jaialdian zehar hainbat kantasai o eta ekintza izan genuen. Jeanine eta Luxi bikoteak kantatu zuen lehenik, ondoren Bedaxagar-gat, J. Luis Davant Xuberotiko euskaltzainak hitzalditxoa eskeini zi-

gun Etxahun gorai patuz; Niko Etxart, Mirande Zartantxu, an Fermin ikastolako abesbatza, Xabier Amuritz beste bi koblakarekin, hauek Iparraldekoak, Larragako joteroak, Robert Larrandabürü, J. Mixel Bedaxagar, Martikorena, Txandelarekin Caubet Jean Pierre, eta aurkezteile lanetan Etxamendi poeta, xarmanta. Maskaradaren zati bat ere eskeini ziguten xuberotar gazteek, eta "Ximena" pastoralaren zati bat ere xuberotar neskatilek. Amaieran, denok zutik, "Agur Xiberua" abestu genuen. Ederra jaialdia eta dotorea Iparla elkartearen antolamendua.

"Zigorra hartzen Nafarroa Euskadi da"

Larragako joteroek saio unkigarria eskeini zuten. Segur aski lehen aldia izan zen Iruñekoak, Erriberako jotero batzuk nafar jota euskaraz kantatzen zutena (ala Euskal Herriko jota?). Bai, euskaraz kantatu zuten jota bat, eta hortan Raimundo Lanas jotalaria eta Etxahun parekatu zituzten senide. Euskal Herriko bi bazterrak besarkatu zituzten, ezta lerdenez eta musika kizkurrez. Larragako

joteroek. Etxamendik adierazi zuen bota zala, malkoak jostaketan zebiltzan arren betileetan. Eta hortan ez ziren gertatu larragatarrak. Erderaz ere jota nahitaz adierazgarria bota zuten. Horrela zioen "batzuk diote Nafarroa ez dela Euskal Herria baina zigor hartzeko garaian, erreprenta garaian, Nafarroa Euskadi dela argi garbi ikusten dugu". Zigor hartzen ez bereizketarik egiten, ez diote egiten.

Artista Herriaren ispilua da

Etxamendik esan zigunez, behin komentatu omen zion Iruiko Etxahunenak, "Artista, poeta, Herriaren ispilua dela". Eta ispilu hortan begiratzen zutene bere burua herriak; beraz, ispilurak ikazten zion irudia tristea eta zorrigaitzeko baldin balitz, herria ere triste eta zorrigaitzeko bihurtuko litzatekeela. Etxahunen irudi ederra eta alaia, animosoa, eskeini nahi zion Herriari, hau ere horrela zedin. Ispilu eijerra eta aurrerakorra izan zen eta da Etxahun.

Amuritzak ere borobildu zuen pentamendua hau. Bertso batetan honela zioen: "...nola konpreni, anima erdia..."

E. KNÖR-I GUTUN IREKIA

Agur!

ANAITASUNA aldizkariaren irakurle soil bat nauzu, eta azken alean, hots, oisailaren lehen hamabostaldikoan, zeuk aldizkari hori eginiko gutuna irakurri ahal izan dut.

Politika eta txukun idatzia, hori bai, baina, bera, amorru bizitan jarri nau. Eta esango dizut zergatik.

"Hau ote da Euskal Pizkundeon behar dugun aldizkaria, zeinetan lesbianak, abortoa, marika eta abar gai nagusiak bait dira?"

Zati honexek sortu dit aipau amorrua. Ez zaitud ezagutzen. Jakin, badakit, Euskal-zaina zarena, eta noski, entzun izan dut zure izena eta irakurri ere bai zure zenbait lan, lesbianismoa edo abortuari buruzkorik ez, noski. Ez nuen uste zure tailako gizon batek honelako gauzak esan zitzaizkeenik. Baina, bai, esan ditzazke eta esaten ditu. Eta, esakun hori, zure ideologia edo pentsakeraren agerpena besterik ez da. Ez du beste esplikabiderik. Eskandalizatu eta erropak urratzen dituzu ANAITASUNAN, euskal aldizkari batetan, lesbianismoaz, abortoz, eta bi aldiz!, marikaz, bakartu, **homosexualitateaz** hitz egiten delako. Homosexualitateaz diot, zeren zeuk, diezun baino errespetu gehiago merezi bait dute sexualitatea era horretan bizitzeko ahalmena eta ausartia izan duten gizon-emakume horiek, agian zeuk eta neuk izan ez duguna.

"Euskal Pizkundeon behar dugun aldizkari" horrek zein gai erabili behar litzuke? Ez dituzu aipatzen, baina intuizten dut nondik norakoa izango litzatekeen. Euskaraz idatzia, hori bai, baina eduki konkretu batez mamitua. Eta euskararen kontra ez dut ezertxo ere, alderantziz, maite dut, bizi dut eta erabiltzen dut. Areago, euskarazko irakaslea nauzu, eta Euskaltzaindiak eman ohi dituen tituluak jabetun. Baina, KNÖR, jauna, horrelako aldizkari batek ere laiter hartuko luke ANAITASUNARI leporatzen diozu underground jitea, eta, egia esan, nik, neuk ANAITASUNA nahigo dut.

Zorionez, eta zenbaitzuren gogoaren kontra, gure Euskal Herri atzeratu honetan badoaz zenbait tabu desagertzen, eta bagoaz-poliki bederen ideologia burjes eta matxistak ezarri dizkigun kultur eta bizi moldeak hausten, zenbait erakunde saildu, hala nola, familia, kuestionatzen, moral burjes eta errepresibo hau lurperatzen eta bide berriak urratzen. Eta abortuari buruz zer? Ba, hitz hau ere eskandaligarri eta tabu izan dela eta dela oraindik zenbait girotan, baina duela gutxi, mila eta mila izan dira abortatzeko eskubidea ohiukatu dutenak. Urrats bat, dudarik gabe.

Nik ANAITASUNARI egingo nioken kritika, egitekotan, zurearen alderantzizkoa litzateke. Zuk hain gorroto dituzun gaiak, marjatuak alegia, eta beste zenbait gai estilo arin batetan erabili ditzala eskatuko nioke. Eta zuri hain gustoko ez zaizkizun idazleei, nik mila zorion opa diet: Itziar Ur-tasun eta Maria Asun Landari, bereziki. Eta jarrai dezatela horrelako gaiak erabiltzen, badugu premia eta.

Besterik ez. Ongi izan.

Felipe Izaguirre (Donostia)

ETXAHUNI OMENALDIA

IRUÑEA, 1980 KO MARTXOAK 2
GAYARRÉ ANTZOKIA 11,45

geniola Xubero eta Etxahun". Eta Iparaldeko beste koblakariak: "(Etxahun) koblakari eta xirulari, berak erakutsi du denak anaiak girela".

Oraindik begien bistan daukat Etxahun behin Iruñean, Gayarre teatro hontan bertan sarlekua non zen galdezka ari zitzaidala. Pañuelo gorria zeraman lepondoan eta ile zuriak kontrastea egiten zuen. Xirula galtzarbean. Eta xirulaz ari garenez, Amuritzak honela kantatu zuen: "haize txistua da Etxahunen xirula". Haize txistua, haize hegaldia... eta mila gauza gehiago.

Biografia

Pierre Bordacarre "ETXAHUN", Iruñerri jaio zen 1908. urtean. Bere bizi guztia nekazaritzan eta bertsoetan, arditan eta kantutan, pastoralak prestatzen eta xirula jotzen ari izan zen. Etorri pastoralak prestatzen eta xirula jotzen ari izan zen. Etorri handiko artista, ia berrehun kanta sortu zituen, eta horietako gehienak "Etxahun Iruñerri Khantan" liburuan aurki daitezke. Denok dakigun bezala "agur

Xiberua" berea da. Ha berau, Mauleko armistizio egunerako asmatu zuen.

Xiberuko eta Euskal Herriko herri gehienak korritu zituzten bere xirulak eta Gat atabalariak, betiko laguna.

Bederatzi pastoal asmatu zituen: "Zantxo Azkarra" (Nafarroako erregeaz), "Etxahun" XIX mendeko Pierre Topet Etxahunen omenez), "Mathalas" (Euskal herriko autonomia defendatu eta horregatik ajustiziatua izan zen apezaren oroitzapenez), "Berterretxe" (Mauleko mutil erahilaren gertakariak, Erdi Aroko kantu epikoan oinarritua), "Trevilleko kuntia", "Xikito de Cambo", "Pette Berretter", "Iparagirre" eta bere azkena "Ximena", Iruñean aurkeztua. Hontan neskak bakarrik dira partaide.

Urtez urte lanean, artista lanean eta nekazal lanetan ari izan ondoren, aurreko urtean, 1979an, hil zitzaigun Pabeko ospitalean. Urriak lehen eguna esrenatu berri zuen. Bere hiletan Euskal Herri osokoa jendeak bildu ziren azken agurrean. Agian ez da sekulakorik izaten, baiña Iruñean ere Agur esan genion. Agur Xiberuari.

BI ALDIZ BOTUA ETA BOSTAK EMAN BEHIN

Hauteskunde garaia delako gure gizonak botua ematera prestatzen da gelan sartuz. Halako batean izen zerrendatik misterioski desagertu da haren izena eta bere lekuan anaiaren izena bi aldiz agertzen da. Mahaingo lehendakariak ezin duela boturik eman diotso. Sutan jartzen da. Faxistak omen dira zerrenda horretatik berari izena kendu egin diotenak. Faborez, eskandalurik ez egiteko diotsate. "Joan zaitetz udaletxera eta eska han zentsu zertifikatu bat, horrekin batera botua emango duzu".

Udaletxean lagun asko topatzen du, denak botu eman ezinean. "Claro, os abstuvisteis en el referendum y no os disteis cuenta de que faltabais del censo". Jueza, jueza!!... ikusi nahi dugu... denok baten oihukatu. Baina jueza ez dago. Nonbait eskutatu egin da. Goizeko hamarrak arte hamaika zertifikatu prestatu badu ere, hamaiketarik aurrera ez du gehiago egin nahi, arras ongi konturatu baita nortzu diren botu ezinean daudenak eta segurutzat jotzen du UCDkoak ez direla.

Junta electoral central, C.G.V., dena alferrik.

Ezinean, arnas hestuka, ba doaz berriro botu emateko gelara.

"Respetemos la legalidad Sr. presidente. Todo el que está en el censo vota".

"Halaxe da jauna, baina zu ez zaude".

"Baina anaia bi aldiz dago. Bi aldiz eman dezake".

"Es inmoral pero perfectamente legal".

"Neuk emanetz gero, oso morala baina guztiz ilegala".

Azken azkenean botua eman zuen gure gizonak, botua eman eta bostak eman mahaingo lehendakari eta interbentoreei. Legea, legea delako, errespetatu behar da ze koino!

BENEGAS OSO HASERRE EGON ZEN GAU HARTAN

Hauteskunde gaua zela eta, Benegas oso haserre omen. Bitartean Viana Arakakoa, hamabiak inguruan "que hay que hacerle pagar a H.B. hasta hacerle desaparecer" zihoen pozik. Erresultatuak ikusi eta konortea galdu. Desagertu bai, UCD desagertuz zihonan. Eta Benegas oso haserre.

Zergatik zaude haserre Benegas? PSOEko erresultatuak? Abstentzio asko Benegas? Bai, baina bederatzi ateratzea ez da makala. "A mi lo que mas me duele es que los de EUZKADIKO EZKERRA que decian que se iban a comer a H.B. no han podido y encima les doblan de votos". No creo que esten tampoco muy contentos con este resultado. Zer du bada, PSOEk eta E.E.k elkar?


E.H.



KILKIRREN KAIOLA VASCONIA OCCIDENTALIS-EKO BIGARREN INDAR POLITIKOA

Gustu guztietarako eritziak daudenez guk ere behinik behin hala egiteak kalterik asko ekarriko ez digu eta, Vascongadas delako mostruositate historiko horri Vasconia Occidentalis deituko diogu. Ba dirudi historiaren aldetik arrazoia omen dutela hala esaten dutenek. Hau (Bizkaia, Gipuzkoa, Araba) ez omen da Vascongadas baizik eta Vasconia Occidentalis (sic) Euskadiko Ezkerreko bozeroemailearen irudiz mostruositate historikoa omen da, hau guztiau "Vascongadas" izendatzea. Bestaldez zelai berde hauek izendatzeko, H.B.k, E.M.K.k, E.S.B.k (oraindik behintzat), L.K.I.k, P.S.T. eta L.A.I.A.k, Vascongadas izenarekin konforme daude. Eta hemen dator harrigarriena.

Espainiako konstituzioan onarturiko estatutua tragu eta onartu dutenek eta logika berberari jarraituz gero, Vascongadas hitza onartu beharko lukete zeren Vascongadas Espainiako administrazio bereko hitza baitugu aspaldidanik. H.B.koek eta abarrekoek aldiz, estatutu horren jokoa onartu ez dutenez, ez zuten Vascongadas ontzat hartu behar. Euskal Herri honetan gauzak aldrebez daude eta kilkirren kaiola (Hori omen da H.B. batzurentzat) bigarren indar politikoa bilakatu da bitartean. Ea datorrenean lehengoa bilakatzen den!!



T. Trifol

AUZMENDI
Sastre on baten izena.

Vergara, I.
Donostiako estiloa.

Original

VOTEZ POUR LA LISTE

S.H.A.D.O.K.

(Sachant, Habilement, Administrer, Défendre, Organiser et Klaxonner)

LA SEULE LISTE QUI AVOUE
ÊTRE LÀ POUR VOUS...

...POMPER...

...VOS VOIX!



Ondoan doan artikuluan M.J. Estebanek Frantziako unibertsitate batean bizi duen esperientzia azaltzen digu. Oso artikulua adierazgarria da Europak eta eurokomunismoak lortu duten frustrazioaz kontura gaitzen. Azken batez gizarteak beti zerbaitetaz sinestea helburua izan du. Bizi garen denbora honetan gizonari ezin diezaiokegu itxaropena ken, hori baita eskumaren jokoa eta zoritxarrez eurokomunismoak bere plan eta azterketa zientifikoegi horiekin Europan lortu duena. Desastre itzela Euskadik ere hortik pasatu behar badu. Gizona, gizona da eta sinesten duelako ez da animalia. Gure planak azterlari zientifiko askorentzat azientifikoak gertatzen badira ere, gizona zer den konprenitu ez dutela azaltzen digute eurokomunistek.

E.H.

FRANTZIAKO UNIBERTSITATEAZ

Ez dirudi Frantzian 12 urte bakarrik iragan direnik 68. urtetik hona. Norik sinets ezakeen hainbeste mugitu. In jendea hain indiferentzia handia jaits zitekeen, edota, atzetik zetozenak hain gutxi mugituko zirenik! Galdetuko didazue ea zergatik hasten naizen juxtu orain honetaz mintzatzen, eta arrazoia daukazue, zeren kanpotik ikusita, ez dirudi oraintxe ezer berezirik gertatu denik hemen. Egia da, gainera, zeren otsailaren amaieran egon diren unibertsitat hauteskundeak ez baitira ezer izan.

Urte bat eta erdi daramat jadanik Pariseko unibertsitate batetan, eta 18 hila-bete horietan zehar, ez dut inoiz entzun inolako eztabaidarik ez irakaskuntz sistemaz ez eta unibertsitatearen antola-

mentuaz eta funtzionamentuaz ere; inoiz ez dut ikusi inolako ahaleginik aktibitatearen bat sortzeko ere.

Urte osoan, ihaz, bizpahiru debate, manifestazio batetarako deia,... eta hori izan zen dena. Inori ez zaio axola klase eta azterketatik kanpo dagoen edozer; klaseak amaiturik, bakoitza beraren etxera, zerbait jatera,... baina inoiz ez klaseko lagunekin inora joan, inoiz elkarrekin ezer ez egin,...

Hemengo giroa ezagutzen duen edonork, halere, esaten dudán honen gützionen kontra zerbait esa diezadake, eta onartu beharko diot gainera: hemengo unibertsitate guztiak ez dira berdinak; ba daude animatuago daudenak; bai, egia da, ba daude bat edo bi, bertako jen-

deak beste gauza askotaz pentsatu duena; baina salbuespenak dira, ez zuzen ere.

Ikasle-sindikatuak ere ba daude, ezkerrekoak, bai eta eskumakoak, ezkerrekoak edo ekologistak ere, baina horietan ez du gehiengoak ezer egin eta dena, barruan gertatzen da, gure hori zerbait bada noski. Agian, urte osoan behin edo birritan banatuko zerbait bada noski. Agian, urte osoan behin edo birritan banatuko du sindikatu bakoitzak papertxo bat, egoeraren kontra oihukatzeke, edo momentuan gertatu den zerbait gaitzesteko. Agian, urte osoan bein ia inor joango ez deneko denbora batetara deituko dute; agian, ez.

Aurtengo ikasturtean, nahiz eta ia erdia joan zaigun jadanik, ezer ez da egin orain arte; eta begira nondik: 15 egun direla sobrepottolo bat hartu dugu etxean ikasle guztiok, botoa eman dezaigula inbitatuz eta aurkezten zirenen propaganda bidaliz. Zertarako eman behar genuen botoa? Ondo datorkidala, oportunitate hau aprobetxatuko dut hemengo unibertsitateen egitura gainetik azaltzeko.

Unibertsitate bakoitza fakultatetan banatuta egon ordez, hau da, antzekoak diren gaiak baturik ipini beharrean, UER (unité d'enseignement et de recherche, hots, irakaskintza eta inbestigaziozko sekzio) delakoetan dago zatiturik. UER batetan esatebaterako, literatura eta fisika egon daitezke elkarrekin edo ekonomia eta matematika. UER-ak nahiko autonomia dauka antolamendu, pro-



UNEF, hau da, gutxi gora behera Frantziako Alderdi Komunistako sindikatoa; programa eso klasiko batekin, propaganda egiten zuten gauza bakarra, abstenitzen direnen jarrera kritikatu, beraiena, "erresponsable" izanik, gorai patuz.

gramazio, plan eta ekonomiaren aldetik. UER-eko kontseiluak erabakitzen du, bestalde, nola banatu dagoen dirua, zeintzu gai eman sail bakoitzean, zer kendu, etab.

Egia osoa esateko, existitzen da ere Unibertsitatearen kontseilua, baina honen, segur aski, posibilitate gutxiago dauka ikasleen bizitzan eta ekintza konkretuen antolakuntzan.

Kontseilu horietan parte hartzen dutenak, unibertsitatean lan egiten dutenen ordezkariak dira: ikasleak, irakasle laguntzaileak, irakasle numerarioak (kontutan har irakasleen sistema desberdina dela hemen), eta irakasle edota ikasle ez diren beste langile guztiak. Legea, dagoena, lege asko bezala, oso polita ba dirudi lehen begiradaz, baina sakondiago aztertuz, ez da hain ona, noski, nahiko txarra baino. Hasteko, ordezkarien kopurua ez da neurtzen sail bakoitzean dagoen jendearen kopuruaren arauera, botoa ematen dutenenarena baino. Beraz, posible da, UER batetan, ikasle gutxi botoa ematen duelarik, kontseiluan ikaslerik ez egotea.

Eta hau gutxi balitz, joan den ekainean proiektu bat aurkeztu zuen gobernuak

parlamentuan, kontseilu horiek gero eta numerarioen eskuetan gehiago egon zitezen. Zorionez, mehatxua hain handia egonez, erantzun oso txarra hartu zuen lege horrek unibertsitate guztiartean, eta sarritan gertatzen ez den greba baten presiopean, erretiratu beharrean aurkitu ziren.

Gauzak honela daudelarik, otsailaren amaieran konbokatu dira aurtengo hauteskundeak; nahi dudana zera da, egon den giroa, edo hobe esan, egon ez denaren ideia bat ematea.

Etxera heldu zaigun sobrea irakurri aurretik ezin esan, daiteke hasteko; zeuden aukerei buruz ezer entzunez dugunik. Abstentzioaren alde zeuden paper batzutatik aparte, hauek ere ia ikusezina, ez da ezer afixaturik egon! Ez da, beraz, benetako kanpainarik egon. Aurkeztu diren kandidaturak hauek izan dira:

- UNEF, hau da, gutxi gora behera Frantziako Alderdi Komunistako sindikatoa; programa eso klasiko batekin, propaganda egiten zuten gauza bakarra, abstenitzen direnen jarrera kritikatu, beraiena, "erresponsable" izanik, gorai patuz.

- "independiente" gisa aurkeztu diren batzu, beraien helburuak hertsiki akademikoak direlarik. Independentzia-itxura horren atzean noski, eskuinkeria dago ezkutatutik.

- Bi talde ekologista, edo hobeto esan, talde ekologista bat, eta programa "kaxondo" bat daukan beste bat. Hauen erreibindikazioak, sakonera joan gabe, unibertsital langileen bizitzaren kalitateari buruzkoak dira, gehiagorik gabe.

- "Pasota" - talde bat, SHADOK; alboan ikus dezakezue beraien "estiloa" ondo azaltzen duen marrazki bat.

Hauetatik aparte dauden taldeek, trostkista den MAS sindikatoa, UNEF-etik irtendako UNEF-Unité syndicale delakoa, eta bestek, abstenitzera deitu ginduten, kontseiluetan egin daitekenaren kontra agertzearen. Hauteskunde hauek ematen dutena baliogabe bada, zertarako parte hartu, horrela gobernuaren komedian sartuz, beraren nahia, hots dena berdin segi dezala, posibleztatuz?

Beti bezala oso jende gutxi hartu du parte botazioetan, eta egin zireneko bi egunetan ez zen ikusten inolako aldataririk unibertsitatearen bizitzan, sarreran eta ormetan agertzen ez zelarik. Erresultatuak ez dira oraindik ezagunak; edo agian bai, eta ez ditut ikusi txoko galdu batetan afixaturik egongo direlako. Espreski beraien bila ez banoa, ez naiz, segur aski, inoiz enteratuko, egon den abstentzio-ehunekoaz, edota aurkeztu direnen lorpenetaz, zeren segur bainago ez direla inoiz leku ikusgarri batetan afixaturik; zertarako, ia inoi axola ez ba zaio?

Gezurra dirudike hemen kontatzen dudana; niri ere horrela iruditzen zitzaidan hasieran, baina jadanik ohituta nago. Oso gutxiengo txiki bat kenduta, inori ez zaio interesatzen ikastea edo titulua lortzea baino. Ez espero orain unibertsitate hauetatik inolako mugimendu sozialik irteten dadinik, labea oso hotz baitago.

Agian, egoera hau gizartean dagoen etsipenaren ondorioa izango da; agian, pendulua bertikal dago oraintxe, eta laster, beraren betiko mugimendu geldiezinari jarraituz, gorantz egingo du berriz. Ez dakit, baina ikusten dena zera da, Frantzian, unibertsitatea (beste instituzio asko gehiago ez aipatzearen) hilik dago, sozial aldetik. Kasu honetan zilegia dateke berpizkuntzarik esperatzea?

Maria Jesus Esteban



AMERIKA, AMERIKA...

Nork bere herria, bere hizkuntza, bere bihotzeko lurdoinua betiko ez entzuteko alde egin dutenen desesperoa. Hori baita, izan ere, Amerika; hori baitira, zehatzago berba eginda, Iparrameriketako Estatu Batuak.

Honela deitzen zen neure bizitzean ikusi nuen lehenengo "arte eta saio"zko filme horietako bat. Igandez ikusi nuen, neure herrian, Santurtzin. Elia Kazan-ek eragin zidan ikara latz ahaztuko dut, hain baitzen eder berak, Armeniako greziarren semeak, egin zuen filmea. Amerika, Amerika... Askatasunaren lurra, mugarik ezaren herria, hori izan zen beraren gurasoentzat Amerika, Robert Laxalt-en ameriketar-euskaldun idazlearen harako "Sweet promised land" (aginduriko herri ederra). Eta hori izan da batasun hau osatuz joan diren askoren bihotzetako mina: Amerika handia, Amerika ederra, eta oroz gainetik Amerika libre, inork bere burua libre sendi dezakeen toki, hainbeste ametsen bilgunea.

Hori baita herri hau, handi, basatikiro handi eta orobat modu basatiz basa, astoren moduan lan egin duten anitzen koizpen, hortz eta harpeez defendatze-ko prest dauden askoren lana.

Eta filme hartan Turkiaren gogorra bagenekusan ere, eta euskaldunen kasuan lanaren beharra ba zegoela dakigunaren, trajerien gainean oinarritu da herri hau, goseen eta beharren gainean, baina batez ere trajerien gainean. Otserri diren atzerri horietara beren herriak ahantziz joan behar ukan duten askoren trajeria; gehienetan senitartekoak berriro ez ikustearren segurtasunaren minaz joan

diren hainbesteren laztasuna, nork bere herria, bere hizkuntza, bere bihotzeko lurdoinua betiko ez entzuteko alde egin dutenen desesperoa. Hori baita, izan ere, Amerika; hori baitira, zehatzago berba eginda, Iparrameriketako Estatu Batuak. Trajeriez osaturiko herria, indarrez osaturikoa, erraiak janez eta azentu arrotzez, minak irentsiz eta oroz lehen bihotzak ahantziz egin den herria.

Gezurra baita. Ez dago migratzeko eskubiderik, lekuz aldatzeko zuzenik. Ba daki hori ederto arrotzetara joan behar ukan duenak. Hizkuntzak hiltzen direlako gezur nazkagarria bezala. Hizkuntzak ez dira hiltzen, itsasoetako urak hiltzen ez diren bezala. Eta hori da, izan ere, Amerika handi eta basatia.

Handia delako basati, eta mundu honetan, ondikotz, basati delako handia, Egia delako ez dela bat ere gaitz edozein ertzetan hil zaitzaketela, edo eta 25.000 ikasle unibertsitari eta 60.000 bizilagun dauzkan hiri txiki batetan neskak edozein tokitan gerta daitezkeela bortxatuak. Ameriketarrek berek esan ohi dutenez: **this is a free country** (hau herri libre da).

Agian 2000 urte barru, edo lehenago zori apur batez, **arrazaz zuriak** oraindik egiten diharduen genozidioa salatuko da, Europak Ameriketako lurretan bostehun urte dela, eskuinetik zein ezkerre-

tik, atergabe egiten diharduen triskantze lazkarrria. Eta horretan ez dago gero Iparrameriketarik edo Peru-rik, Mexiko edo Brasil-k, denak baitira bat. "Zurien gaitzetik libra gaitzazu jauna" egin ohi duen otowitz Mexikoko txamula indiarrek. Orain txere bertan larogei herri desberdin hiltzen ari den batasun ikaragarria baita Estatu Batuen federazio hau, inork ezer ez duten herri handia, alemanek juduen kontzentraziozelaietaz ezer ez zekiten bezala.

Bai, hau da ikus daitekeen Amerikak bat, ameriketarrek libre sinesten duten herria, mundutik demokrazia-zabaltzaile eta zapalkuntzen askatzaile. Agian honetan, trajerietan sortu zelako sendi mendu askoren ahanzle, eta halaz ere hainbeste gauzatan eder. Naturan baten ere, Nabokov-ek aipatzen zuen Europako landa berdeetatik hain desberdin den natura gaitza, berriro ere basati, supurgorri, otso eta nahi den beste animalia eta pizti izugarrien natura, beraren nagusitasuna erakusteko prest edozein unetan egoten dena, haizerauntsi, luze-kara, euritzarra edo beste edozer dena segur asko herri hau hain gogor egiten ere, baina era berean maiz hain atsegin lagundu egin duena, indarra eta jabetza biziaren alpha eta omega direneko herrialde erraldoi hau. Amerika eder eta libre.

Andolin Eguzkitz

EUSKARAZ ZER? HONA GURE HITZA: EGUNORO ERABILTZEA.



© GRUPO

Egin dezagun egunkari elebidun bat, gure kale, eskola eta lantegietan euskara egunoro erabil-araz dezan.

Geure hizkuntza baitugu gure herri bizitzaren erakusle bakarra.

Iritsi baita euskara geure etxe-zulotik ateratzeko garaia. Guztiok hartu behar dugu esku, Egin geurea, elebiduna, geuk nahi dugun hori izan dedin.

Elkargoan eginez. Guztiok finantzjatuz.

Egin dezagun geure egunkari berri eta egi-zalea.

Harpide zaitetz eta partzuer-kontu bat eskura, kupoi hau bete eta ORAIN, S.A.-ri bidaliz: ORAIN, S.A.

Apartado 1567. Bilbao.

Apartado 444. Pamplona.

Apartado 1397. San Sebastián.

Apartado 420. Vitoria.

EGIN egunkariaren finantziaketan esku hartu nahi dut:

Urteko harpidetzaren bidez.

(2.000 a 100.000.) _____ pezetako partzuer-kontuaren bidez.

Ordaintzeko era

Giro n.º _____ Cuenta corriente n.º _____

Bankoa _____

Deitura _____

Helbidea _____ Telefonoa _____

Hiria _____ Probintzia _____

egin

HAGAMOS EGIN. EGIN DEZAGUN EGIN.



Rosa Montero, "El país"eko Kazetaria

Rosa Monteroren liburua, bapatean irakurtzen dela esan daiteke. Zurrutada izango balitz. Zurrutada garratza. Ez baita "Cronica del desamor" delako hau kronika alai eta xarmanta horietako bat. Zenbaiten, gehienen frakaso eta biziezinaren kronika hitsa baizik.



Kronika hau, generazio baten kronika dela deritzait. Orain dela 15 edo 20 urte, twist dantzatzen zuten gazte mukizu horiena, edo Francoren garaian, iraultzaz, libertateaz, maitasunaz, gogoz mintzaten zirenak. Zer gertatu da horiekin? Zer gertatu da gurekin?

Rosa Monterok eskaintzen digun erantzuna ez da oso baiezkorra: Parejak lehertuak, kotidianitate batek apurtutako amodiozko esperantzak... ama etsiak, aita ilunak, "haurregatik" elkarrekin jarraitzen dutenak. Politikaz desilusionaturiko militante sutuak. Pubetan galdutako gizon-emakumeak, zerbaiten, norbaiten bila dabiltzanak. Sasiabenturak urratuak, zahartzaroaren presentzia larria, zertarako bizitzen den galdera erantzun ezina.

Bizitzaren frakaso eta desenkontuaren sentimentua dario Rosa Monteroren kronikari.

Bere liburua ez dela nobela bat dio egileak. Nahiz eta arrakasta izugarria izan, ez nuke nik esango "Cronica del desamor" delakoa, nobela on bat denik.

Bainan, egileak dioen bezala, egungo kronika bat hartuz gero, orduan oso interesgarritzat jotzen dut Rosa Monteroren bigarren liburu hau. Testimonio balore duelako eta pentsarazteko zenbait gai eskaintzen digulako.

Guri tokatu zaigun garaia ez dela garai erreza ondo adierazten du liburuak. Krisaldibetetan murgildurik gaude, kolektibo eta pertsonal mailan. Haurtzaroan genituen zenbait balore, pikotara joan dira. Geroxeago jarritako zenbait ilusio edo esperantzek ere (politikoak, sozialak) askorengan pott egin dute. Nora jo? Nori eutsi? Zergatik, zertarako bizi?

Afektibitateasunaren arloari dagozkion hutsuneak larrietasunak dira. Egun, gizartea antolatuta dagoen eran, gero eta bakartiago aurkitzen gara. Hiriak, etxe blokeak, hauzo ezezagunak... giza harremanak gero eta hotzagoak dira. Irlak bihurturik, pareja, familia batengan ezartzen dira gure afektibitatearen beharrak. Baina, bi zutabe hauek aspalditik daude kolokan. Sakonki aztertzea honen arrazoiak luzaro eramango gintuen... Dena dela, soziologikoki, gero eta gehiago parejak apartatzen direla eta familiak nolabait sakabanatzen direla, argi dago. Bi zutabe hauek lurrera jotzen dutela eta biluzik, arras abandonaturik aurkitzen gara. Afektibitateerako gordelekurik gabe, hutsunez inguratutik. Ez dago bide berririk, ez daude pertsonen arteko harreman berri batzuentzako alternatibarik.

Askotan aipatu ohi dira, sozio-politiko alternatibak. Badirudi hortik bakarrik etorriko zaigula paradisia... Bainan nork salatzen duen bakartatea, nork elkarrenarteko indiferentzi eta inkomunikazioa? Nork eskaintzen dituen pertsonen arteko harreman afektibo berri batzuentzako alternatibak?

Rosa Monteroren liburuak ere ez. Aipatzen dituen egoerentzat ez du irtenbiderik eskaintzen. Bainan, egungo errealtatea behintzat ondo salatzen du... alarmazko kanpaiak jotzen ditu iluntasunean, nork bere barnean erantzun dezan.

Mariasun Landa

(1)

ELKARRIZKETA

* Zer duzu maiteen mundu honetan.

—Anaitasuna eta laguntasuna. Zuen aldizkariari ez nagokio. Nahiko kaxkarra da oraindik.

—Eta gorrotatzen duzun gehien?

—Nik ez diot inori gorrotorik. Teoria mailan gorrotatzen dudan kategoria, agresibitatea dut. Baina agresibitatea fruitu bat duzu. Ezgizontasunaren fruitua. Mila arazo gaizki soluzionaturik gabe daudelako jaiotzen zaizu agresibitatea. Euskal Herrian agresibitatea funtse funtsean daukagu. Oso edukazio erridikulu eta judutarra dugunez, agresibitatea sozial gauzatan sartzen dugu. Herri honetan den—dena euskalduna, abertzalea, eta politikoa bihurtzen dugu geure barneko kontradizioak estaltzeko. Gorrotatzekotan “abertzaleak” gorrotatuko nituzke.

—Ez al zara abertzalea?

—Ni mundu zalea naiz. Euskarazalea, euskadizalea, pertsonazalea, larrujozale eta larrujotzaile. Baina abertzalea ez. Hori ez dakit zer den.

* Zer pentsatzen duzu hemengo talde politikoei buruz?

—Denak intrantsijentziaz eta agresibitatez beterik daude. Nire ustez, horiek guztioiek; afektibitate eta laguntasunen problemak soluzionaturik gabe daukate.

—Eta kapitalist gizartean soluziona daitezke?

—Ez. Guztiz ez. Baina lasaitasun gehiagorekin bizi daitezke.

—Boturik ematen al duzu?

—Bai.

—Zeini?

—E.E.-ri, H.B.-ri.

—Ez al daukate agresibitaterik?

—Bigarrenak, lehengoak baino askoz gehiago. Biok baino, UCD gehiago.

Horregatik hain zuzen, ematen diet. Baina botua ematea eta kaka egitea gauza bera da. Biak beharrezkoak. Lasaitzeko balio dute.

* Zeintzu izen aipatuko zenituzke gustora? Zergatik?

—Einstein, Rostand, Sartre, Hemingway, nire lagunena eta abar.

—Zergatik aipatu duzu Rostand?

—Denok berdin berdinak ginela esan eta frogatu zuelako. Haren liburu baten atarlanurtean zera dio:

SARRERA

Jende arrunta, gure betiko jende ixil edo bozgailugabedunari, kazetalariek normalean ez diogu kasu askorik egiten. Haien aburuak baliogabekotzat kontsideratzen dira. Haien esanak, mesanak direla sinestarazi nahi digute. Hala ere, balako jendeak, historiaren atal garrantzitsuena idazten ohi du.

Jende ezezagunaren eritziak ez dira batera fruitugabekoak. Giza arruntaren ideiak gure pertsonaia famatuaren desmitifikapenerako balio dute. Denatan bezala, herriaren jakituria adierazgabeari lapurtu egiten diote beren sentimendu, eguneroko lanez probetxatuz.

Horregatik bain zuzen, ANAITASUNAK irakurle guztiei norberaren ideiak azaltzeko, sail ireki bat proposatzen die. Sail ireki bat eta joko psikologiko bat batera. Urte honetan zehar elkarrizketen bidez irakurleek eritziak azaldu nahi ditugu. Proposatzen dugun elkarrizketa guztiz libre eta atipikoa izan daiteke. Hala ere erantzuleak 10 galdera zehatzi beharrezkoak luke erantzutea, beste gainerako galdera—erantzunak berak gebituz; nahi izanzen duen modu eta erara. Beraz, galderaerantzun guztiak, irakurleak egiten ditu, 10 horiek ezik. Hamar hauei ere erantzun behar dio.

Elkarrizketa guztiak anonimoak izanen dira. Hau da, Anaitasunak ez du argitaratuko inongo elkarrizketaren egilearen izena. Hala ere, idazten duenak beraren karnetaren zenbakia, izena, adina eta lanbidea azal batean bidaldu beharko digu. Azalpen horiek gabe ez dira argitaraturik izanen.

Honarte gure asmoaren erdia azaldu dugu. Goazen orain sail honen bigarren partea azaltzera.

Bigarren parte hau joko psikologikoa duzue. Irakurleek elkarrizkatuaren nortasunaren ageri batzu igerrri behar ditu. Hauek dira: Adina (bost urtez go-ra behera), lanbidea, sexua, bizilekua (hiri edo herri handi batetan bizi den ala herri txiki edo baserri batetan bizi den). Azkenez, elkarrizketa bakoitzari puntuak eman beharko dizkio, -5tik hasita +5 arte.

Puntu gehien hartuko duen inkesta irabazlea izanen da. Lehengo biru inkestei Anaitasunak txapela eta zerbaite gehiago saritzat emanen dio.

Elkarrizkatuen datuak igerriko dituenari Anaitasunak urte beteko barpidetza dohaina eskeiniko dio.

Jokoaren bigarren parte honetan, ANAITASUNAREkin lan loturak daukatenek ezin izanen dute parterik hartzea; bai aldiz, elkarrizketak prestatzekotan.

lako: Susmagari egin xaizkit oso, filosofiaz, moralaz, zein politiaz izan, hortaz deus ez dakiten eritziak.

—Eta hori errepikatzen duzula, no-retaz pentsatzen duzu?

—Euskal Herriko politikari batzuetaz. Konkretuki batengan. Ez dizut esango.

* Zer nolako literatura gustatzen zaizu?

—Giza, gizon eta gizarteaz aritzen dena. Eskolak berdin zaizkit. Baroja, Hemingway, Aresti, Sartre, Russell, Einstein... Einstein-ek oso literatura ona idatzi zuen. Fisikaren literatura, zientzia guztienetako humanoena.

* Zilegia al da belaunaldi biziak etorkizunekoengatik sakrifika-tzea?

—Zilegia ba daiteke. Estupidoa ere bai. Ni ez naiz moskitu bat.

* Gizona ezagutzeko aski al da norbere burua ezagutzeko?

—Elkarrenganako maitasunik badago, uste dut baietz.

* Zer pentsatzen duzu iraultzan buruz?

—Nire ustez, “sozialismoa” kategoria historikoa da. Historian zehar bere betekizuna eduki du, jadanik bukatu da epe hori. Hemen eman behar diren pausoak ez dira pasatuko sozialismo historikoetan zehar. “El asalto al poder” ez da, emandena modura berriz emango. Datorren iraultza guztiz diferentea izango da. Giza—iraultza izango da batipat.

* Euskarak etorkizunik aldu?

—Ni ez naiz UCDkoa. Batzutan, etorkizuna edukiko duela pentsatzen dut. Beste batzutan ezet. Euskararen etorkizuna E.A.Jn dago.

E.A.Jn eta UCDn. Hizkuntzak azkenez zera duzu: Elkar harremanetarako tresnak. Tresna horiek, haiek dute, beraz...

* Anaitasuna aldizkariari bagogozkio, gai berririk sartuko zenuke?

JOKOAREN BALDINTZAK

● INKESTARI DAGOZKIONAK

- o) Irakurle guztiek parte har dezakete. Gure kolaboratzaileek ere bai.
- 1) Makinaz edo eskuz idatziriko hiru orralde bidali beharko dituzu.
- 2) Euskaraz. (Edozein euskalkiz). Ez kezkarik izan ortografiaz edo eta joskeraz. Zuzentzekotan geuk zuzen dezakegu.
- 3) **ASTERIZKOZ DOAZEN HAMAR GALDEREI BEHARREZKOA DUZU ERANTZUTEA.**
- 4) Zuk zure buruari gehiago galdetzeko eta erantzuteko libre zara.
- 5) Izengabetasuna gordeko da inkesta guztietan. Hala ere bidaltzaileak karretaren zenbakia, zuzenbidea eta izena bidali beharko ditu. Alderantziz, ez da argitaraturik izanen.

● IKERKETARI ETA PUNTU EMATEARI

- 1) Irakurle guztiek parte har dezakete.
- 2) Anaitasunako erredakzioa, idazleek edo eta kolaboratzaileek ezin dute atal honetan parterik hartu.
- 3) Postaz, eta bidaltzailearen izenarekin batera, ematen dituzun puntuak garbi azaldu beharko dituzu, puntuazioaren laukitxoan gurutze bat markatuz.
- 4) Berdin egizi ikerketari dagozkion galderekin, laukitxoan gurutze bat markatuz.

-Ba dakit zaila datekeen duzuen ahalbideaz konturatuta. Hala here, behin behineko erreportai interesgarriak irekiko nituzke nik, benetako euskal aldizkaria izan dadin. Sail berriak argitaratzekotan, kolorez eta guzti erotismo erdi pornografiko, erdi kontsumista, erdi iraultzailea argitaratuko nuke. Seguru baietz, askoz gehiago salduko zenuketeala.

* Anaitasunaz balorapen bat egin ezazu mesedez.

-Nahiko berezkoa da Anaitasuna. Arraroa ere bai. Noizbehinka argitaratzen dituen guztietatik zerbait interesgarri **ba dago** tartean. Presentazio aldetik -ona- dela iruditzen zait. Euskal prentsa salbatzeko, erroilo guttiago eta bizitasun gehiago behar da.

PUNTU EMATEA

Elkarrizketa honi zuk zenbat puntu ematen diozu? Inguera ezazu biribil batez

-5 -4 -3 -2 -1 0 +1 +2 +3 +4 +5

Zure ustez, elkarriztatuak ondoko adina duke:

- 16tik - 23raino.....
- 23tik - 31raino.....
- 31tik - 39raino.....
- 39tik - 47raino.....
- 47tik aurrera.....

Zure ustez elkarriztatua:

emakumea da.....

gizona da.....

Zure ustez elkarriztatua:

- hiri handi batean bizi da.....
- herri handi batean bizi da.....
- herri txiki edo baserrian bizi da.....

Zure ustez elkarriztatua lanbidea duke:

- Esku langilea.....
- langile espezializatua.....
- Arrantzalea edo Baserritarra.....

- Goi mailako kuadro teknikoa (ekonomista, inje-niadore, peritua, medikua, abokatua), irakaslea, kazetalaria, etab.....
- Behere mailako kuadro teknikoa (Bulegolaria, idaz-karia, ajentea etab).....
- Entrepresa txiki baten jabea.....
- Maizterra.....
- Goi burjesia.....

(2)

- Zer duzu maiteen mundo honetan?

- Maitasuna.

- Eta gorrotatzen duzun gehien?

- Batzutan, gauza asko, beste batzutan guttiago, baina normalean, injustiziak. Hitz batean maitasunik ez egotea.

- Ba al zara abertzalea?

- Bai, gauzarik argienetarikoa hau da. Beste puntuetan eztabaidak ba ditut, hemen ez.

- Zer pentsatzen duzu hemengo talde politikoei buruz?

- Hasteko, ez naiz politikan erteratuta. Hala ere, sumindurik nagoenean azala kentzen paratzen naiz. Argi ikusten dudana, zera da: Euskal Ezkerra batu behar dela, bestela ez dago zer eginik.

- Boturik ematen al duzu?

- Bai. H.B.-ri, koalizioa delako.

- Zeintzu izen aipatuko zenituzke gustora?. Zergatik?

- Nire familiako batzuenak. Poe, Cortazar, Heese, Proust, Cat Stevery e.a. Zergatik? Haietan aurkitzen dudalako bilatzen dudana.

- Zer nolako literatura gustatzen zaizu?

- Lehen aipatu ditudan izenekin, erromantikoa naizela nahiko argi geratu dela uste dut. Idazlea eta irakurlea zenbat eta hurbilago hobe. Gure barnean dauzkagun ideiei edo inspirazioei askatasuna ematen dio hurbiltasun honek eta orduan dantzan daudenak guttinenak dira.

- Zilegia al da belaunaldi biziak etorkizunekoengatik sakrifikatzea?

- Gaurko gizartean ez da erraza bihar-ko lan egitea, eta dena ez da gizartearen errua, gurea ere bai. Baina marra gainditu gabe ez baikara betiko.

- Gizona ezagutzeko aski al da norbere burua ezagutzea?

- Oso zaila, zeren ibatzuetan zenbat eta gehiago ezagutu norbera, guttiago beste eta alderantziz. Lehenago, nor-nori jakin behar da.

- Zer pentsatzen duzu iraultzari buruz?

- Iraultza klase asko dago eta ez dago batere argi eta politikan oraindik guttiago. Gainera uste dut jende gehienak planteiaturik gabe edo nahasturik dau-dela honi buruz. Adibidez, linea edo par-tidu baten barnean aurkitzen baita ez-berdintasun gehiegi.

- Euskarak etorkizunik al du?

- Beste galdera bati erantzun dudan bezala, une batzuetan ilun ikusten dut, baina itxaropena galtzea azkena da.

- Anaitasuna aldizkariari bagagoz-kio, gai berririk sartuko zenuke?

- Lehengoko galderari buruz zera esan-go nuke. Ez dugu euskaraz barre asko-rik egiten. Orduan txisteak, ipuinak e.a. sartzea eskatuko nuke.

- Anaitasunaz balorapen bat egin ezazu mesedez.

- Gaur egun ezin dugu kritika handirik egin euskal prentsari zeren nahiko egi-ten baitute hor egoteaz.

Gutun honen helburua euskara prakti-ikatzea izan da eta bide batez zuekin kolaboratzea.



OSKAR KOKOSCHKA ETA EXPRESIONISMOA

Haurtengo otsailan, hogetabian, Oskar Kokoschka pintorea hil zitzaigun. Artelari modernoan garrantzitsuenetariko bat, bere bizitza guztia, morala zuzenaren ejenplu bat da, eta zibilizazioaren ikasgai bat.

1866an jaio zen, Danubioren bazterretan, Pöchlarn-en. Haurtzaroa jadanik ezagutu zituen larrialdiak eta estudurak, bere aita langabezian aurkitu baizen, txirotasunean eroririk. Naturaren mirasle, gaztea zelarik, Vienan Pacifiko itsasoko moztarrok ezagutu zituen, eta Japon-eko artea. Klim eta Hodler pintoreek, arte Barrokoaren ezagumena opa egin zioten, Maulpertsch pintorengan aurkiten Austriar barrokoaren iturria. Barrokotan arduraturik, sakondu zuen, zeukan barrokoaren ideia eta artikulua idatzi zituen horren buruz, Burlington Magazine" aldizkarian.

Bere ikusmen barrokoa bere bizian zehar sakondu zitzaion, Dresde-n, Praga-n Salzburgo-n eta Vienan bizitzerakoan.

Hogetabi urteekin, jadanik hasi zen pintatzen bere erretratu psikologikoak,

antzerki obrak idazten eta poemak konposatzen. Bere idazlanak eta erretratuak, eskandalu gorria sorerazi zuten.

Adolf Loos-ek, dena dela, konturatu zuen, Oskar Kokoschkaen balioz eta ingurune intelektualetan sartu zuen, Altenberg olerkaria ezagutzen, Karl Kraus idazlea, Reinhold antzerlaria etab, nor-tzu, bere lagun handiak bihurturik, bere modeloak ere izan ziren.

1925aren inguruan, Kokoschka, ingurune intelektual zabal batetik mugitzen zen aktibitate geldigabea eramaten. Karl Kraus-ek animatzen zuen egunkariak, "Die Fackel"-ek, burgesiari zalatzen zuen eta "Die Fackel"-ek, burgesiari zalatzen zuen, eta "Die letzten Tage der Menschheit" antzerki bakezale ere prestatu zuen. Beste aldetik, Peter Alten-

BANG

Pistola beltz ilun bildurgarri hura hasi zen tiroka-tiroka, etengabe, aldameneko eta urrutiko semaforo eta kristau guztiak hiltzaren irristokitik. Pistola harkez zekien ezer bihotzaren eta biziaren maittasunaz; haren altzoko balek berdintsu zulatzen zituzten gonazpiko braga errugabeen dantzaldia nahiz iturri agortu haren ur irrikatua.

Pistola hari "Bang" zeritzon, edo Bang zerjitzoten behinik behin, ezen haren jaiotzeari eta sortzeari buruzko zezerak bilatzen egon bainaiz, dena alferrik baina. Ez omen zen kristau heziketakoa, agian agnostikoa. Behintzat, momentuzko istilutxo irristerrazak bapatean erabakitzen zituen, kizunaren ispiluari garrantzirik eman bage. Zirtz edo zartekoa nonbait.

Ostera, baliogabeko biografiarik egitea baino balio gehiagokoa izango zaigu eraman zuen praxia ikustea, eta, ahalik eta hobekien, azaltzea.

Egia esan, ekintzako izakia izan genuen hetri Bang, eta horri buruz ez zaigu txarto etorriko Museo Historikoan nengoela, haren aitonak —Trabuko— zioztana: "txikitant-txikitandik jalgi zitzaion niri imitatzekeo premia, buruargi zelarik ni eta gutarrak amaitzeko beste ba zen izan ere; eta ekinaren ekin ez lortu egin zuen bai".

Herri eta gizarte askotan frogatu ahal izan dut Bangen taigabeko borrokaren egitasuna, izatasunaren gordina; paperak oro bete dituelarik.

Eta ba zeuzkan garrantzizko lagunak ere. Al Capone lagun mina ei zuen eta euskaldunen kontrako burrukan haren papera eta garrantzia arrunt dezisiboa izan zela xuxurlatu dit ahots fidagarri konta-kontari batek...

Hari guztiak bilduz, ehun adderra lortu dut, eta ondorio zehatz batetara iritsi naiz: "Bang zapuztu indargabe bat besterik ez zen".

Nik, niotson neure buruari; "pena ematen dit eman, pistolagaixo horrek, harena bai mundu ulertezina-hotza".


Eta gero, herenegun, marrazki batetan zaharkitua ikusi nuenuan, berresan nuen neura kolkorako: "arrazoia heukan hik".

Bang, hil da. Bang bakar eta soil hura hil da, baina hala ere haren semeak hurbil dauzkagu: Bang-Bang-Bang-Bang-Bang-Bang-Bang-Bang...

Haietako batek Bangtxo du izena, ba dakizue, tradizioaren ohitura. Eta esan zitekeen arbasoen jarraitzaile dugula, aldiz, ba daude beste batzu ere... eta nagusi dira... Bang, tiro eta tiroka-ka-ka-ka = erorita zenbait buru eta irudimenaren praktikak.

Jon Sendagorta.

Karlos Santisteban



ber-ek, olerki sentikorrek egiten zituen. "Jugendstil" zirkigunearekin lotuta hasieran, (Hau zen alemanian, europoan zehar sortutako zirkigune estetiko bat eta estilo bat, "Modern stile" edo "Art nouveau" zeritzona. Kokoschka-k "gazte ametslariak" liburuen grabaduak egin zituen, Klimt eta Hodler pintoreen eragipñena erakusten.), Vienan, parte hartu zuen, bertan gerturik zegoen bizkundera kulturalean, Mahler, Schonberg, Berg, Webern, Bela Bartok musikalariekin, eta Arthur Schnitzler, Musil eta Kafka idazleekin batera.

Michel Ragon-ek dioskun bezala, Klimt-en eta Schiele-ren exenplua jarraituz nahasmen geldigabe batera eraman zuen Viena-ko barrokismoa, etapa berri batera eta emankor batera.

1919ean, pintore eta erretratista ospetsua jadanik izanik, Berlin-era tuak, arras ilunak dira, beltzak, marroiak. Dresden irakaslea zelarik, margo bizikoren zaletasuna hartzen zitzaion, marraskia deformatua eta torturatua eginik. Bortxa izugarria dute bere ederlanak, pintzelada arinak eta pasta aberatsarekin eginitako koadroetan. Koadroak mugikorrek dirudite, frenesi batek atzamanik. Bere erretratuei buruz hauxe utzi zuen idatzirik: Vienan egin nituen lenengo erretratuak, guda baino lehen, pertsonak seguruak bizi ziren garai batek zentozen, baina beldur ziren. Hori neuk igertzen nuen eta pintatzen nituen, bere angustiarekin eta beren barruko minarekin".

EL TAMBOR DE HOJALATA



Presupostu handiko filma honek Can-nesen Urrezko Palma lortu ondoren, oso harrera eduki du publikoarengan. Denok dakigun bezala Gunter Grassek 1959.urtean argitaratu zuen "El tambor da hojalata" liburuan oinarritzen da filma hau, eta dudarik gabe idazle alemaniar honek ukitzen dituen gaiak ez zaizkio arrotzak W. Schlendorfi. Alde batetik gustora aurkitzen baita nobelari batzuen lanei buruz lan egiten (El joven Torless—R. Musil; El rebelde — H. Von Kleist; El honor perdido de K. Blum - H. Böll; Tiro de gracia - M. Yourcenar) eta bestaldek liburuaren gaia (pertsonea baten inadaptazioa helduen mundua) konstante bat baita W. Schlendorfen lanean.

Dudarik gabe liburu eta filmaren artean badaude zenbait diferentzia, esate baterako: filman ez da liburuaren 3.zatia azaltzen eta hola akzioa 1957.urtean bukatu beharrean, 1945.ean amaitzen da. Bestaldek ere, filma bat egiteko holako



liburu lodi bat laburtzen denean, gauza asko utzi behar da alde batera eta kasu honetan zenbait ekintza eta pertsonaia ez dira sakontzen (Oskarrek ahotsez erakustokiak puskatzen dituenean, pertsonen zurikeria azaltze arren; Greff dendariak filman zer egiten duen ez dakigu, eta liburuan garrantzizko pertsonaia bat da; eta azken finean egite guztiak lekutu eta baldintzatzen dituen antzektoki erre-alaren eza nabaria da — Munduko 2. guda, Normandiako desontziraketa, judu popularen pertsekuzioa...) eta bakarrik Oskarren elementu hurbilenak eta berak arbuaitzen duen munduaren erre-presentaketa hartzen ditu.

Nobelak egiten duen lehenengo eta hitugarren pertsonen erabilketaren aurrean, filma, eszena batzuk ez ezik, 3.ean oinarritzen da gehien bat.

Nahiz hau oso nabaria izan liburu eza gutzen dugunontzat, honek ez dio interesik kentzen filmari eta eraketa bat egi-teagatik ordaintzen den prezioa dela esango genuke.

Schlendorfen hamargarren filma honek Oskar Matzerathen historia kontatzen digu. Danzing-en, 1924. urtean jaio ondoren, eta 3 urte dituenean, bere gurasoen etxean ikusten dituen helduen arteko harremanak eta bere aitak Oskarrek negozioa aurrera eramanen duela pentsatzen duela ikusirik, gehiago ez handitzea erabakitzen du. Hemendik aurrera bere danborra eta ahots kristale-hauslea izanen dira zapuzketa horren adierazgarriak.

Dena dela Eliza, Nazismo eta helduen sexu harremanekiko duen ezakordioak ez dio argitasuna ukatzea eragozten.

Filma honen errerealismoa nobelan bezala eszena guztietan isladatzen da, eta guri ezrealia eta absurdoa iruditzen zaigunak erreallitate hori potentziatzen du, helduen konbentzioetatik urrun.

Aktoreen lana, Maurice Jarre-ren doinu eta argazkiak une guztietan filmaren erre-alismo ezrealia eta duen humore beltza azpimarratzen dituzte. Ez dut uste historia honetan sinbolismorik bilatu behar dugunik, beti genio bat (batzuetan Beethoven eta besteetan Hitler izan daiteke) bilatzen ari diren pertsona batzuen umekeria baizik.

Bebrak garbi dio zirkoaren eszenan: "Guk ez dugu inoiz ikusleen artean egon behar. Gure lekua antzektokian edo hondarrean dago. Gu gara jokua eraman eta akzioa erabaki eta mugatu behar dugunok, bestela haik izanen dira maneatuko gaituztenak eta beti gaizkihurtuko gaituzte".

X. PORTU

EUSKAL HERRI MUSIKA

Orain dela gutxi, eta Banco de Vizcaya-ri esker, duela 2 urte bukatuta zegoen "Euskal Herri-Musika" filma ikusteko aukera izan dugu. Zoritxarrez orain arte kajoi batean egon da gordeta eta nahiz Bankuaren arrazoiak ezagutu, egia esan, ez ditugu oso ondo ulertzen. Dena dela Fernando Larrukerten lana gure artean dugunetarikoinportanteena da, eta beste euskal filma batzuekin konparatuz gero, benetazko sorpresa bat izan dela esan beharko dugu.

Esan ohi da euskalduna Auñamenditan abesten duen herri bat dela, eta hori bakarrik ez izan arren (hau garbi dago) faktore hau ere ezin dugu batertu, eta Larrukerten taldea oso ondo saiatu da hortaz.

Ene ustez, eta aztertzen baditugu zenbait euskal filmen gaia eta sustraia (Pelotari, Ama Lur, Gipuzkoa, Nafarroa 4 urtarokak, etab) errez eroritzen zirela folklore huts batetan konturatuko gara, eta aitzitik, "Euskal Herri-Musika"-k folklore eta ikerketa, zabal-kundea eta definizioa lotzea lortzen duela, eta berak duen poesia eta Xabier Agirresaro-beren argazki lan zoragarriak ez diotela sakontasunik galtzen eragozten.

Filma honen egiturak euskal musikaren eta euskaldunen lanaren ermitmoaren artean dagoen erlazioa adieraztea du oinarritzat. Filma zehar, arrantzale, artzain eta nekazarrien lanaren taupadek sortuko dute, leize-zuloetako gizonen oihuarekin batera, herri musikaren funtsa, eta gero jendearen bizitza osatzen duten elemento eta gertaeretik aterako dira beste faktoreak (guduak:



gesta abestiak — Berreterretzeko khanta —; erlijioa: abesti erlijiosoak; etxeko lanak: artazuriketa abestiak, seaska kantak, ihaute-riak, etab.

Gero doinu emaileen zerrenda luzea ikus dezakegu: txistu, alboka, xirula, xirularrúa, dontzainea, arratza, maniura, xirribita, zarrabetea, ttun-ttuna, danbolina, tobera, txalaparta, sunprinua, tronpa, etab.

Arlo hontan ezin dugu Joxe Migel Barandiaranek erakusten dituen aintzinako txilibitoak ahaztu: Lekeitiokoa, orain dela 12.000 urtekoa, eta munduko doinu emaile zaharrena den Isturitzeko txistu, orain dela 27.000 edo 28.000 urtekoa baita.

Euskal Herri musikari buruz mintzatzen garenean, ez dugu bertsolaritza ahaztu behar, eta hor ditugu Manuel Lekuona apaiza, eta Lopategi eta Lazkao-Txiki bertsolariak, bestso eder batzuen bidez ahozko literaturaren zergatia adierazten.

Gure herriaren kultura musikala gordetze arren zenbait pertsonen lana ezinbestekoa izan da, eta hor ditugu Iztueta, Madame Villéhelio, Sallaberry, Charles Bordes, Azkue, R. Gallop eta Aita Donostiaren kantu-geiak.

Eta benetan, hemendik aurrera filma hau ere kontatu beharko dugu euskal herri musikaren lan eragileen artean, eta ez bakarrik aztertzen duen gaiarengatik, berarekin daraman edertasuna eta poesiarengatik baizik.

X. PORTU

- "Ez da zaila zenbait "giltza" ikastea, baina nik ez dakit noraino gauza izango ginatekeen, zerbait gertatuko balitzaigu,



AUTODEFENSARAKO BIDEAK

Azken gertakizunak direla medio (bortxaketak, mehatxuak, etab) autodefentsazko ikastaroen beharra nagusitu da zenbait emakumearengan.

Ez dut uste, ideia hau, Euskadin gertatutako azken bortxaketaldiari atxiki diezaiokegunik, aspalditik sentitutako nahiari baizik.

- "Nik beti izan dut autodefentsa edo horrelako zerbait baten beharra sentitu. Are gehiago... askotan zera esaten nuen nere kolkorako: Hain ahulak, traketsak eta indar gabekoak baldin bagara emakumeok, zergatik ez digute eskoletan karate edo judo irakatsi? Zergatik ez dira bere burua defenditzeko hezitzen neskatilak?... Geroxeago ulertu dut zergatia. Ez dutelako nahi gu indartzea, ahulak eta beldurtiak jarraitzea baizik. "Feminagoak" bait gara holaxe eta... Bueno, dena dela, hemen aurkitzen nauzu, 30 urterekin, lehenagotik jakin beharko nuena ikasten... Hau da, erasotzen bannate, nerekin sartzen badira, zer rekursoak erabil ditzakedan ikasten..."

Horrela mintzatzen zait, autodefentsazko kurtsilo bat egiten ari den emakume bat. Donostiako Emakumeen

Asanbladak antolatutako kurtsiloetara, 70 emakume inguruan apuntatu dira. Arrakasta handia izan dute, hiru astetako kurtsilo hauek.

- "Ez da zaila zenbait "giltza" ikastea, baina nik ez dakit noraino gauza izango ginatekeen, zerbait gertatuko balitzaigu, ikasitakoa praktikan jartzea... Azken finean, barruko, psikologik arazoa da, gehien bat. Beti hezi izan gaituzte pasibiltasunean eta enen eritiziz, kosta egiten zaigu baten bati erantzutea. Dena dela, oso pozik nago, zenbait rekurtsio ikasiz, badirudielako konfiantza gehiago duzula zure buruarengan" dio beste emakume batek...

Taldeak, 15-20 inguruko emakumez osaturik daude eta hirutan banaturik: goizekoak, arratsaldekoak eta iluntzekoak. Diruz nahiko merke, giro atsegina.

- "Defentsa pertsonaleko ariketak, karate, judo eta haikidoko zenbait teknikak osatzen dute. Teknikak errezak eta efektiboak... Teknika hauen arrakasta, sorpresa faktorean datza. Emakume batekin sartzen denak, guttien esperatzen duena, horrengandik erantzun bat jaso-

tzea da. Hau da, besoarekin bihurturik aurkitzea edo kokotzan ehundako kolpe bat hartzea... Eta sorpresa horrekin jokatatu behar da. Kolpeak, azkarra, zehatzta eta efektiboa izan behar du". komentatzen dit kurtsilo hau ematen duen monitorea...

Horrelako ikastaroak, indartsu hutsa izateak hainbeste garrantzia adierazten du. Gorputza ezagutuz gero, posibilitate handiko zenbait rekurtsio erabil daitezke... hankak, ukondoak, behatzak, defentsarazko oso tresna baliagarriak bihurtzen dira. Hala ere, emakumearen defentsarazko, beste bide batzuk EPE landu beharko genituzkeela, deritzait. Zentzu zabal batetan planteiatu beharko litzateke emakumearen burujabetza hau. Emakumeoi erasotzen dizkiguten zenbait agresio, ez baitira beti kolpez konpontzen.

Izan ere, eta gauzak dauden eran... tira! jipoi galanta bat emateko gauza izatea, zoritxarrez, oso komenigarria izan daiteke.

BERTSO BERRIAK, LEMOIZEKO ZENTRALEARI JARRIAK

Urteak aurrera doaz eta Iberduerok, erreke-erre, lemoizeko zentralea egiteko asmoarekin dihardu. Gainera bere alde ditu goiko indarrak, eta hori argi ikusi da, Bizkaiko Gobernadore Zibilak Mungiko Udalak zentralearen kontra hartutako erabakia ilegaltzat hartzean. Dena den, aurkako indarrak ere ugari dira. Manifestaldiak, boikota eta bestelako egintzak Euskal Herri osoan zehar. Eta noizean behin, bonbaren bat, duela zenbait aste Gasteizen gertatu den bezala. Baina oraindik bukatu gabe dago eta martxan ez jartzen nahi guke. Ideia horik guztiok kantagai hartuz, hona hemez zenbait bertso, zortziko nagusian idatziak eta gogo onez kantatzeko pentsatuak⁴

Lemoizeko inguruetan gauzak daude oso bero, zentrale hori martxan jartzeko hor ari da Iberduero. Jende gehiena kontra duzue haserreturik gauero; ETArengandik bonba besterik ezin duzue espero

Lurrin-sortzaile bati tokatuz hasierakoan txanda, oraingo hontan bateri batzuk egina dute eztanda. ETA taldeak bere mezua argiro dauka emanda: "zentrale hori, gure eritziz, Euskal Herrian sobran da"

Areitio jauna bere barruan ikusi dut oso larri; akzionistak lasai uzteko hizketan ari da sarri. Beraren burugogorakeriak hara zer duen ekarri: Guk ez dugu nahi inola ere martxan dezatela jarri

Langabezia ezin kendurik batzuk jateko ere doi-doi Lemoiz dugu, dudarik gabe, kapitalistaren morroi; hura egiten gastatu dute orain arte hainbat milioi, arazo hortan ez baitaukate diruaz beste arrazoi

Lege indarrez jarri denean kontra Mungiko Udala, Gobernadore Zibilak gogor zimurdu du betazala; gero esanik, lotsagabeki,

hori ez dela legala; pertsona batzuk onartu dute dena ardiak bezala

Nuklear horrek ekartzen digu energiarekin kalte, askatzen baitu kanpora hainbat erradiaktibitate. Neroni behintzat ez zait gustatzen ondorio hori bat'e; norbait mina sortzen badio, errudun zuek zarete

David izan zen burruka hortan eroritako lehena; gero langile batzu ere bai, bonba baten ondorena; Gladis Tuteran erahil zuten txakur zantarrek hurrrena. Penaz diot hau, baina seguru: ez da izango azkena

Gure Herria bizi daiteke zentral nuklearrik gabe; hori edukiz, ez gara izango geure buruaren jabe. Amerikako agintariak saldutakoak dirade; hainbeste milioi beste arlotan inbertitzen zen hobe

Gure inguru guztiak zikin airea betea hautsez, hibaietako arrainak hilik ta ura edan ezinez; erradioaktibitatea ekarririk derrigorrez, nola ez dugu esango denok: Zentrale nuklearrik ez!

Txepetxa.





WILHEM REICH-EN BERRINTERPRE- TAMEN BAT (III)

Energia begetatiboen banaketa-zentralea. Bifuntzionalitate begetatiboen integrakuntza (sinpatikoa-parasinpatikoa) hipotalamoan eta alboko egituretan (s. linbikoa) burutzen da. Zerbait autorek "errai-garun" deitzen diote, guztiz egokiroki energia begetatiboen banaketa-zentrale dei lekoke, ezen hemen berton baita delako energia horien banatzea egiten deneko lekua. Banatze hau sistema begatiboaren adar batari edo besteari fabora diezaiokeen hormona eta substantzia igorle-proporzio batean manifestatzen da.

Egun, fenomeno neurohormonaletan hipotalamoak betetzen duen funtzioak estudioak egiten dira (9), haren barnean kinada ezberdinei (akustikoak, ukimenezkoak, begietakoak, erraistekoak s.a.) era ezberdinetan erantzuten duten aldeak bereizi direlarik. Lehenengo estudioetatik nabaritu zen zatiketa-gradu bat aurreko eta atzeko hipotalamoaren artean. Aurrekaldea parasinpatikoarekin erlazioaturik zegoen eta atzekaldea sinpatikoarekin. Aitzekaldearen eragiteak

odolbide-laburketa, takikardia eta beginini-dilatapena sortzen ditu, indibiduo neurotikorengan (N.S. sinpatikoa laboraturik dutenak) gertatzen diren fenomenoak.

Banaketa global honetatik aparte, ba dago ere dibisio funtzional bat (erantzuten zaion kinadaren arabera), ilunagoa eta zail identifikatzekoa.

Kinada mingarri batek hipotalamoaren luzean sakabanaturiko neurona-proporzio handi baten erantzuna eragiten du; larruzalaren hozdura batez zerbait neurona aktibatzen ditu, beste batzuren aktibitatea inhibitzen dituen bitartean.

Argiaren efektuei buruz beste eritziak dira zenbait ikertzaileentzat: batzuren-tzat, neuron askok erantzungo luke, beste batzuren ustetan oso gutxi erantzungo lukeelarik. Erabakite dagoena argiak gonada-aldaketen urteroko zikloan eragiten duela da. Bakarrik zelula-kopuru txiki bat da eraginik soinuak, usaimenean aktibitate global hipotalamikoa aldatzen den bitartean (nahiz eta alboko hipotala-

moan preferentzi).

Alcaraz-ek (1969) ematutu-eragina estudiatu zuen katemearengan eta aurreko hipotalamoaren neuronetatik 23% anberen aktibitatea arinagotu zutela ikusi zuen, 15% ean inhibititu zuten bitartean.

Sistema sinpatikoak eta parasinpatikoak, substantzia igorle ezberdinak erabiltzen dituzte, noradrenalina batak eta azetilkolina besteak. Aurkako eraginak edukiko al dituzte substantzia hauek hipotalamoan? Aurreko hipotalamoaren nukleoparabentrikular izendaturiko aldean, azetilkolinak zelula neurojariatzaileetatik 81% a aktibatzen zuela ikusi zen, noradrenalinak aurkako affectua egiten zuten bitartean. Horrelako zerbait gertatzen zen ere delako hun supraoptikoan.

Oker litzateke funtzio hipotalamiko guztiak azaltzea substantzia adrenergikoen eta kolinerjikoen arteko antagonismoa hartuz oinarritzat. Honela, esate baterako, substantzia-moeta biok (obulaziorik beharrezkoak diren hormona biren (hateotropos eta folikulu-eragilea) jariatzea laboratuz ekiten dute.


Energia begetatiboen banaketa-zentraleen eredutzat honako hau ezar dezakegu: nerbio bukaerak, zeinetara gorputzetik beretik eta kanpotiko mezuak iristen baitira, zenbait alde espezifikotatik edo zentrale osotik bana daitezke. Mezu batek alde determinatu batzua aktibatuko ditu, erantzun espezifikoa bat sortuko delarik.

Erantzun espezifikoa begetatibo bat faktore hauen konbinaketagatik zertzen da: neurona aktibatuen eta inhibituen kopurua, kokatzea (dautzaneko nukleo hipotalamikoak), eta neurona horien izaera (jariatzaileak diren ala ez, eta kinada ezerdinekiko sentikortasuna).

Aurkako erantzunak lortzeko neurona batzua aktibatzen dira, besteak inhibituta dauden bitartean, eta aldrebes, neuronek aurkako efektuak dituzten neuroigoriek jaria ditzakete (azetilkolina eta noradrenalina hormona luteotropoaren eta folikulu-eragilearen ekoizpena eragiteko, eta, gutxiagotzeko, serotonina), neuroigoriek berberak, kopuru ezberdinetan, aurkako efektuak sor ditzake (adrenalina-dosi txiki batek prolaktina eragiten du, dosi handiak inhibituen egiten du).

Biologi erritmo ezberdinak, batzua adrenalina-mailek mantendurik dira (hileroko erritmoan, adrenalina gehitu egiten da obulazioaren aurreko periodoan, gutxitzeko ondoren; aldaketa hauek aurreko hipotalamoan gertatzen dira balez ere), beste batzua azetilkolina-mailek (hormona adrenokortinotropoaren ginarriko mailen eguneroko arritmoa azetilkolinak mantendurik da). Baina stress bat sortzen den bakoitzean noradrenalina-jariaketa bat dago, zein erritmoaren gainetik ipintzen baita eta aldatu egiten du. Adibidez, hormona adrenokortinotropoaren berehalako gehibien batek, esneketa inhibitzen du.

Energia begetatiboen banaketa egokia sistema sinpatikoaren eta parasinpatikoaren arteko oreka batek agertzen digu. Egun argiz oreka sistema sinpatikoaren nagusitasun erlatiboa batekin mantentzen da eta gauean parasinpatikoaren alde desplazatzen da. Egoera patologikoa bat kanpoko inguruneagatik edo barneko okerrengatik tonua era orokor eta iraunkor batez direkzio batetan, jeneralean



sinpatikoa, desplazatzen denean dago. Stress egoera batetan agertuko litzatekeen erantzun berbera agertzen da, aktibitatearen desbideraketa bat, zeinek hormona adrenokortinotropoaren

jariaketa-gehitze bat sortzen baitu hazieraren eta esneketaren gonad-hormonen ekoizpen txikiago baten lepotik. Baita odolbide-laburketa bat egongo da ere.

Energia begetatiboen egoera seinالاتzen duen termometroa orgasmorako entregarduak determinaturik dago. Orgamoan oreka hormonal eta neurobegetatibo bat burutuko da, zein ongitasunen tzaioa eta bizi-gogoei agertzen baitigute. Aitzitik sexu harreman txar batetan, edo hestutasunean, biziaren aurrean ito beharra inpikatuko lukeen oreka neurohormonal bat agertuko litzateke.

KONKLUSIOA.-Gure gorputzaren erreakzio-eran inpliziturik dauden fisiologi bitartekotasunak gure gurasoek eta hezleek manipulatorik izan dira. Bilakaeraren etapa bakoitzaren berezko jo-

erak indibiduoarentzako sentido mesedegari batetan bideratu beharrea, erreprimitu egiten dira (10). Energia begetatiboen zentralea sistema sinpatikoaren alde programatuta geratzen da, hots, akorazamenduaren eta neurotizismoaren alde.

Garaiz gaude gurekiko arrotza den "programa" hau, alienagarria (gure gorputzaren bilakaera normalak libreki jariatzen utziko zituzkeen pultsioekiko), apurtzeko; ideologia sartuta den indaralkondara hau hauts dezakegu eta erreprimituriko joerek noraino eraman gaitzaketaren beldur izan gabe geure buruak berreraiki. Energia begetatibomari bat desblokeiatu geratuko da atseginarenean eta lan sortzailearen alde, eta, ondorioz, ez ditugu errazki SISTEMAREN inposaketak jesango. (9) H.J. Eysenck, "Fundamentos biológicos de la personalidad". Fontenella ed. 1970. (10) Errepresio hau bi eratan buru daiteke elarik: bortxaren bidez (gaztigua), edo eta era errefinatuago baten bidez, xantxia afektiboarekin (ukatu egiten zaio haurrari maitasuna gurasoek inposatzen dizkioten portaera-ereduak erreproduzitzen ez baditu).

Myriam David, "L'enfant de 2 a 6 ans". Edouard Privat ed., Poitiers, 1974.

HIZTEGIA

Banaketa-zentrale: Central de distribución.

Beginini-dilatapen: Dilatación pupilar.

Ekoizpen: Producción.

Ematutu-eragina: Estimulación vaginal.

Errai-garun: Cerebro visceral.

Folikulu-eragile: Folículos timulante.

Gonada-aldaketa: Cambio gonadal.

Gonada-hormona-Hormona gonadal.

Igorle: Transmisor.

Kinada mingarri: Estímulo doloroso.

Neurojariatzaile: Neurosecretor.

Odolbide-laburketa: Vasoconstricción.

Portaera-eredu: Modelo de comportamiento.

Karlos Santisteban

(*Lan honen egilea Aurelio Santisteban cimarro da.

LIBURU BERRIAK

**MATRIMONIO DEL CIELO Y
DEL INFIERNO
LOS CANTOS DE
EXPERIENCIA.
WILLIAM BLAKE**

Visor bilduma. Alberto Corazón argitadaria. Barcelona. Hitzaurrea: Luis Cernuda.


Liburu honen hitzaurrea nor egin duen ikusiz, textuaren axolagarritasunaz garrantia ba dugu; Alberto Corazónek bere Visor bildumaz jarraitzen digu poesiaren gailurrak opa egiten. Liburutxo honetan William Blake ingeles poeta, grabatzailea eta margolarien olerki eta prosa interesgarriak dakartzkigu, ingelesez eta gaztelaniaz.

William Blake, 1757an jaio zen, Londresen, geroago, ingeles poeta handienetarikoa, erlijiosorena izango zena. Haurtzaroan jadanik, bere nortasun berezia, ikuskorra eta lilurapentsua (visual y alucinante) erakutsi zuen. Bere lehen biografoak, Gilchrist-ek, ametszale geldigabea bezala aurkezten digu, arima erromantikoduna, eta Londresen ingurunean sortzen ziren arratsaldeko eta oskorrietako argi goibelen maitalea. Geroago, baserriko bizitzak, (la vida del campo) bere adimena aberastuko du, irudi idilikoak hornitzen, bere poesia moldatzeko, irudi bortxatsuekin batera.

Hamar urte zituela, lenengo ikuskera (visión) jasan zuen: pasiatzerakoan, zerurantz so egin zuen eta aingeruz beterik zegoen zuhaitz bat ikusi zuen, izarrak balira dirdiraka. Beste behin, "hada" (1) baten hileta ikusi omen zuen. Aluzinazio hortaz ikus dezakegu, bere buruak zuen eta pairatzen zuen intensitate mistikoa, eta haurtzarotik zetorkion mundu espirituala.

Aluzinazio hoik, Blake berak, irudimenaren alabak zirela esaten zuen, eta berak zeukan ahalmen hori, edozeinek eduki ahal zenituela litzatekela.

Beste aldetik ere, bere formazio intelektuala nahiko bakana izan zen. Bere aita, Blake baldintza normalekoa ez zela kon-



aturatuz, hezketa arretatsua ematen dio. Hamar urtetan, hasiko zuen marraskitzen, eta pintatzen, Pars-en eskolan. Pars-ek opa zizkion eredu klasikoak, han kopiatu zituen eta agian garai hortako dira bere lehengo irakurketak: Shakespeare, Milton, Dante, Biblia, etab. Antza, eragipen handiena egin zion liburuak, Milton-en "Paradisu galdua" omen zen, eta liburu horretan, Eroketa-ren gaia, "El tema de la Caída" gaia, Blake-ren "Liburu Profetikoan" gai zentrala izaten.

Hamalau urtetan, Basire zeritzon grabatzailearen etxean sartu zen teknika hori ikasten, eta bere bizitzan zehar utzi ezinik teknika hori. Basirek, Westminster-eko hilobiak pintatzen bialdu zuen, horren medioz "Gotikoa" ezagutzen: "Gotikoa forma bizia da" esan omen zuen geroago.

Handik, Akademia Erreal-era abiatu zen, oliosko teknika mespresiatzen eta grabadua, akuarela, temple teknikak lantzen eta saiitzen. Ez zitzaion zaio laiket erreal zera marraskitzea, eta Rubens, Le Brun etab ez ditu ikasten, Rafaelen eta Miguel Angel-en grabaduak baizik.

1788an, "Iñozentziaren kantak" lehen atala idazten du, eta "Thel-en liburua". 1.790ean, aipatzen dugun liburuan agertzen den "Zeruaren eta infernuaren eskontza" argitaratzen du. Cristobal Serra-k dioskun bezala, Blaken irreberentziaren testigantza, (testimonio) gaiztofasunaren leizetan sakontzeko ahalegin bat. Deabru, aingeru, hitz zaharriek beste aurpegi bat hartzen dute.

Liburu honetako "Experiencia kantak" 1974an agertzen dira, "Liburu Profetikoak" baino, idazlan jareginagoak, mistizismoz eta abtrakzioz beterik dauden kantak.

Blake, gaur egun poeta handia duguna, ez zen bere garaikideek maitatua.

Gizon bihurria, matxinoa, beti jokatu zuen bere garaian zeuden konbentzioen aurka. Frantziako iraultzaren aldekoa, bere garaikideentzat pertsonai arriskugarria zen; Reynolds pintatzailea, arrakastaren gailurrean zegoenean, berarentzat, ehunen zikinzailea baino ez zen. Bizi izan zen eta lan egin zuen, ezarritako arauetik kanpoan eta honela ulertezina bilakatu zen. Bere burua guztiz bihurria zen. Bere garaian zeuden errealitate gesurtien aurka jokatu zuen, joan den denborarekin dagon etendura, sortzeko beharrean landurik, irudimena ezarri zuen giza balore orokorra bezala.

Kontraesan guztien artean eta inkoherentzi guztien artean bere poesia xortzen gaitu, poesia filosofikoa baizen. Bere egoera munduan barnean, etikoa da ispirituaren indarra aldekoa. Inglatterran hasten zen iraultza industrialaren lenengo ondoreak ikusi zituen ere, materialismok dominatzen zuen mundu batean: "Ikusgarria da, lur aberats eta emankor honetan, miseriak hondaturik diren umeak esku otzez eta zekenez elikaturik Abesti bat da ohizu makal hau? poezeko abesti bat al haz izango da? Hau omen da txirotasunezko lurra?."

LIBURU BERRIAK

Deistei eraso egin zien; Arrasoia-
ren gesurrak salatu zituen, teologia hortodoxoa
aurkako izanik. Irudimenaren balio-
tasuna ere baieztatu zuen arrasoia-
ren aurka.

Blake, kristau izan arren kristautasun
heretikoaren zuen. Kristo berarentzat ontasunarekin identifikatzen zen, baina Jehova, ordea, izua eta tirania zen.

Cernudak, hitzaurrean, bere obrari bu-
ruz honela mintzo: "La obra de Blake pa-
rece resultado del impulso hacia la cre-
ación de un orden nuevo por medio de la
poesía, gracias a una visión profética
(acaso sea este uno de los sentidos en que
puede tomarse la palabra "romántico"),
iniciando experiencias que alguna gene-
ración futura pueda estimar dignas de
continuación". Poeta izugarria, suaren

indarra dute bere olerkiek. Apokalipti-
koa, erabiltzen dituen sinboloetan eta to-
noan, prosaz idazterakoan pentsamendu
filosofikoak eta erlijioso-mistikoak bial-
tzen dizkigu, eritmoa zaintzen, egitura
poetikoak (bere garain ikugaitzak zire-
nak: errima, neurriak etab) deusesta-
tzen. "Los antiguos Poetas animaban to-
dos los objetos sensibles con Dioses o Ge-
nios, nombrándolos y adornándolos con
los atributos de bosques, ríos montañas,
lagos, ciudades, naciones y todo lo que
sus vastos y numerosos sentidos podían
percibir.

Particularmente estudiaban el genio de
cada ciudad y región poniéndolo bajo su
deidad mental.

Hasta que un sistema fue establecido,
del cual algunos se aprovecharon, y
esclavizaron al vulgo con el intento de
hacer reales o de abstraer las deidades
mentales de los objetos. Así comenzó el
Sacerdocio:

Escojiendo formas de culto a partir de
las narraciones poéticas.

Y al final ellos dictaminaron que los
Dioses habían ordenado cosas tales.

Así los hombres olvidaron que Todas
las deidades moran en el corazón huma-
no".

Jon Sendagorta.

Oharra: Iduritzen ba zaizue, texto larre-
gi dagola erderaz, itzuli ezazue. Neuk ez
dut itzuli, oso txarra izango baizen nik
eginitako itzulpena.



**LAS VANGUARDIAS
ARTISTICAS DEL
SIGLO XX**

**MARIO DE MICHELI
ALIANZA FORMA.
Madrid**

Arteari buruzko lanak eta
ikerketa teorikoak jarraitzen
ditu argitaratzen Alianza ar-
gitaletxeak. Hemen aipa-
tzen dugun liburua, bere
izenburuak dioskun bezala,
XX mendean sortutako zir-
kingune artistikoei buruzko
bilduma da. Egileak, atal
bietan zatidu du bere lana:
lehena, saio bat da, mugimendu
artistikoak begira-
tzen eta adierazten, ikuspegi
konkretu batetik. Bigarrena,
dokumentuz hornit-
zen da eta mugimenduek,
berek egindako textuen la-
purpen bat da.

Miguel Sanchez Ostiz

**PORTICO
DE LA FUGA**



**AMBITO
LITERARIO**

**PORTICO DE LA FUGA
MIGUEL SANCHEZ
OSTIZ**

**Ambito literario.
Vitor Pozanco
argitaldaria
Barcelona**

Hona dakarkizuegun
poema bilduma honen egi-
lea arras ezezaguna da gu-
retzat. Ezin dugu poema
pare bat aipatu baino, eta
gaztea dela esana, eta na-
fartarra. Ikusiko dituzuen
bezala, poemak oso finak
dira, ezkorrak, goibelerebe-
harbada. Barcelonaan joan
da argitaratzen bere liburu-
txo hau, gero oso txarto
banatua izanik. Horregatik
ez duzue erraz aurkituko.
Ahaleginak egin itzazue,
merezi baitu.

De Micheli-k, "ismoak"
eta artisten eginkizunak
adierazterakoan, artisten
garaiko egoera sozialarekin
nola zeuden harreman duril
konturazten digu, beti,
prespektiba sozial batetik
sakontzen bere azalpenak.

Bide, horretatik, artisten
baliopenak onartzen ditu,
iraultza sozialekin harre-
mentzen badira, eta ez bes-
terik. Ezin dira bereizi, be-
rarentzat, koadroen balioak
eta artistaren egoera politi-
koa eta soziala.

Bere lanez ezagutzen dira,
artista askok izan zuen
ideologia politikoa eta por-
taera soziala. Geuk, bere iri-
tzi batzu onartu ez arren,
liburuari interes handia
ikustun diogu, artelari asko-
ren eta zirkingune askoren
ezagumena osatzen baitigu.

Mugimendu batzu azaltze-
rakoan ere, iruditzen zaigu,
azkeneko ikerketak falta-
tzen zaizkiola, ondo ente-
legatzeko eta ikuspegi boro-
bila emateko. Marxista ez-
kutatua izanikere, bere
pentsaera agertzen zaio le-
rro artetik, noizean behin
kontraesanak ere edukiz.

J.S.

Que no te inquiete/ el
vuelo del pájaro, / ni el tem-
bloroso/ y prolongado ta-
ñido de la campana, / ni el
inoportuno golpeteo / de la
mariposa nocturna/ en tu
ventana, / ni ese aullido in-
motivado del perro, / pues
no son sino reflejos / de la
tiniebla / que desde siem-
pre te habita.

Eta beste hau: "No debe
extrañarte / el día en que
de / pronto sientas / una
irrefrenable vocación de
traperero, / y empieces a ate-
sorar, hosco, / el vino y las
previsiones.

Ese día cerraras ventanas,
/ acallaras los fuegos / y
permancecerás rodeado de
esos objetos, / tus modes-
tos y fieles interlocutores, /
también fetiches y testigos
mudos/ del estertor que
empezó a crecer... / ¿nace
cuánto tiempo? /


De esa forma, tu casa /
tapizada de polvo antiguo/
convertida en guarida / y
cercada por el acoso de la
arruga, / apenas te prote-
gerá del susto. / Y allí que-
darás, / quieto, / todo
ojos, / a la espera inevita-
ble.

J. Sendagorta

APIRILAREN ALEA

- El saneamiento de la ría del pis al pis ...
- Entrevista al partido radical italiano.
- Los Indios: Parias de Mexico.
- La izquierda abertzale un mapa complejo.
- Por la libertad contra la barbarie.

LIBURU BERRIAK



Malcolm Lowry
 Poemas
 Visor bilduma. Madrid.

Malcolm Lowry, mozkorti handia, bidaiari geldigabea, legenda batean bihurtu zuen bere burua, bizitza eta obra batera eginik, batera jasanik.

"Bolkanen azpian" nobela ospatsuaren egilea, nobelari izan arren eta nobelaka egitea izan arren bere grina eta bere zaletasuna, poesia ere idatzi zuen. Beti irakurtzen da, Lowry-ren obra bakarra "Bolkanen azpian" nobela dela, eta beste guztia obra horren adierazpena eto osagaia baino ez dela. Egia balitz hau, olerkiak ere nobelaren osagai bat izango litzateke. Bietan, olerkietan eta nobeletan (adibidez "iluna, nere laguna dantzan hilobian bezala" nobelan ere), tonu berdina eta giro berdina aurkitzen ditugu, beta geldia eta dolukorra, orduen mina eta desesperantza bat, bizia, joku bat baino ez balitz, heriotza gugana etorri arte.

Poema hauetan, bere bi ziaren intentsitate erakusten du, bere eskuan gauza oro hatzematuko ezintasuna, bere sentimendu sakonak, bizitzaren bihozkatetasuna.

Lengoaia, batzutan oharren tonua dute, sentibera filosofikoa beste batzutan eta sentierazteko izugarriko indarra.

Bertso batzu irakurtzerakoan, mundua hain handia dela dirudi, hain aberatsa, hain izugarria baita, korronteak eramanik bizi behar dela, soluzio bakarra bezala. Oro ezin da hatzeman eta jagon. Orduan sentitzea bakarrik gelditzen zaigu, baina zentzu hondora heldu Arte, gure indar guztiarekin, gure bizi guztiarekin.

Haundiespenezko unetxoak ere ba ditu bere poemetan, baina haundiespen iragankorra, barruan eduki ezin duena, hots, bere buruak jasan ahal duen baino handiagoa. horretatik beti alkohola, eta geldigabeko aktibitatea, bidaiak eta esperientziak, alkoholean itoak.

"Un peregrino atraviesa de noche la ciudad, Hombre ignorante, insignificante, Era peregrino cuando empezó el mundo A leer extraños cazadores en el infinito. A la izquierda están los acantilados, mientras a la derecha El mar es como ese mar cuyo rumor atravieso Una vez en su infancia la llanura tempestuosa. El mar era esperanza entonces, y el rumor era luz. Los acantilados son altos, el mar demasiado profundo, La ciudad es solo una mentira, crispada de mentiras Si tuviera el valor de no dormir, ¿No podría seguir? ¿No podría levantarme? Enseñame a navegar los fiordos del azar Enroscándose a mi abismal ignorancia.

Jon Sendagorta.



INGURUAREN ARDURAZ

JON ENBEITA

Hordago

INGURUAREN ARDURAZ

JON ENBEITA
 HORDAGO argitaletxea.
 Donostia.

Bizkaitar Urretxindorren Kepa Enbeitaren biloba, Balendin Enbeita-ren semea, Jon Enbeita dugu, azkenengo bertsolariaren txapelketan bigarrenena. Bertsolariaren gazteenetarikoa bat, trebea denik ez dugu zalantzarik, Auspoa argitaletxeak eginikako txapelketari buruzko liburuan, bere bertsoak irakurriz.

Hona, Hordago-k atera duen liburuxka hau, non Jon-ek, olerkien antolapen bat dakarkigun. Ez da liburu berri bat, hots azken finean eginak, zeren eta, Jon-ek hitzaurrean dioskun bezala, beti izan baitu olerkaritzaren zaletasun eta eginbehera.

Guri harritu zaigu, olerki hauen antza ikustea, poesia letrista edo konkretuaren jite formala baitute poema batzuk. Apollinairek eginikako "Calligrames"en antzerakoak, irakurketa polibaliokorra dute, era desberdinetan irakurri ahal baitira poema berdinak.

Argitaraketa oso ona irudi zaigu, marrazkiak ere eramaten, eta pitxia baititzen tratatua baitago. Hemen adibide pare bat:

S. Sendagorta

Nik ez dakit inoiz gai hau euskaraz erabili denentz, baina garrantzi handia duela uste dut. Eta euskara idatziaren zehaztasunerako eta normaltzerako, argitu beharra dagoela esango nuke. Lerro hauek, hain zuzen, argibide eta abiapuntu izan nahi lukete.

Zenbait arlotan luze-laburtasunak garrantzia du, idazpidea eta idaztanke-
ra aukeratzeko moduan Adibidez, ko-
mak ipintzerako orduan, edo eta zeren,
ezen eta antzerakoak erabiltzerakoan.
Artikulu honetan azken partikula hauen
erabilkerari buruzko eritzi batzu agertu-
ko ditutu. Zer esanik ez, erantzunak eta
aportazioak pozik eskertuko nituzke; ea
guztion artean arazoa argituz goazen!

Luze-laburtasunaren definizioa edo

Noiz esan daiteke esaldi (perpansa) bat luzea dela euskaraz? Ez dugu definizio zehatzik, baina nik neuk, praktikan, aran simple hau erabiltzen dut:

Esaldi laburrak arnasaldi batetan erraz esan daitezkeenak dira.

Esaldi luzeak arnasaldi batetan nekez esan daitezkeenak edo eta esan ezin daitezkeenak dira.

Ikusten duzuen bezala, definizio nahiko in-
tuitiboa da; baina hoberik ez dagoen bi-
tar-tean, horrekin konformatu, eta kito!

Zeren, ezen, non, ... partikulak

Gure inguruko hizkuntzek euskaraz ez bezalako egitura dute. Bestalde, herri txikia izanik eta orain aipatuko ez ditugun beste mila arrazoi tartean direlarik, bizitza modernoari loturik doazen arlo gehienetan, erdaraz eraikitako kulturak euskarara egokitu beharrean aurkitzen gara. Eta noski, Kultura horiek erabiltzen duten hizkuntza eta geurea desberdinak direnez, zenbait problema ageri dira, kontzeptuak adierazteko modua euskararen kasurako egotitzean.

Gaur egun, mendebaldeko zibilizazioaren menpean. Eta bertan prosa egiteko modu konkretu bat dago, Europako hizkuntza gehienetan berdintsua dena. Batezbeste, ia egitura berbera dute hizkuntza horiek eta horrela ez da problema gogorregirik sortzen beren arteko itzulpenetan (espainol, frantses eta ingelesarekin adibidez).

Erdaraz preposizio eta Konjuntzioak aurretik doazenez, abisua ematen zaio irakurleari, gero zer datorren gutxi gorabehera seinalatuz. Euskaraz, ordea, menpeko esaldietan aditz atzizkiak ditzarekin eta atzeko partean jarri ohi direnez, irakurleak ez du aldez aurretiko abisurik, eta esaldi osoak irakurri arte ezin du jakin, teroak nondik doazen. Horixe da, hain zuzen ere, problemaren iturburua.

ESALDI LUZEAK ESALDI LABURRAK

tuak direla. Baina euskararen egokitze-
ahalmenaren eta eboluzioaren adibide
polita dira. Eta, ene ustez, baztertu gabe,
beren erabilkera erautu eta neurtu egin
behar da.

Partikula horik erabiltzeko arana.

Labur esande, partikula horik erabili egin behar dira batzutan, baina ez dira gehiegi erabili behar. Ene ustez, arana hauxe da:

- Menpeko esaldia laburra denean, hobe da horrelakorik ez erabiltzea.

- Menpeko esaldia luzea denean, argita-
sunaren izenean beste erremedio hobe-
rik ez dagoenean, lasai erabili behar di-
ra.

Arau hau hurrengo koadroan bildu nahi izan dut eskematikoki. Bertan esaldien luze-laburtasunaren arauerako sailka-pena egin dut, esaldi-motak ezkerrean agertzen diren partikulen bidez adieraziz:

	esaldi laburrak	esaldi luzeak?
zeren	ezer ez:	bai
baita	zeren baita
ezen	ezer ez:	bai
dela	ezen dela
non	ezer ez	bai
delarik	bertan delarik
izanik	non baita non den
zein	ezer ez	bai
	(berau) ... delarik	zein baita zein den

Zein, ezen, non ... eta antzeko partikulek, kasu horietan aldez aurretiko abisua emateko balio dute. Erdarada direla esaten dute batzuk, eta besterik gabe gaitzesten.

Nik neuk ez nuke horrenbesterik ez esango eta ez egingo ere. Egia da, inguruko erdal kulturen eraginaren kausaz sor-

Koadroan partikula horik noiz erabili behar diren adierazten da. Eta oraingo artikuluan ez gara gehiago luzatuko. Hurrengo batetan, erabilkera horren adibideak emango ditugu, horrela ideiak hobeto argituko ditugulako esperantzaz.

LIBURU BERRIAK

ATLANTIDA: ATXAKIA BILA.

TUMATXA!



Atlantida

V. Paschos

Atlantida horretan badago azpijokorik. Azken urte hauetan 81930-tik aurrera) garatu diren teoriak (kontinenteen deriba eta fondo ozeanikoen hedapena) nahiko argi azaldu digute ozeanoen eraketaren mekanismoa bai eta honekin lotuta dagoena ere. Holako teoria globaletan beti dago gauza ilunik, baina hala ere bidea da, ezagumenduranzko bidea, alegia.

Azken batez, kako horretan azaltzen den arazoa, betikoa dugu. Alde batetik aurrerantza jotzeko beharrik sentitzen dutenak eta bestetik, beren eredu mugatuetan geratzen direnak; progresistak eta inobilistak; aurrelariak eta atzelariak; ateoak eta kristauak; batak eta besteak.

Eta nik neuk behintzat, inguru honetan sartuko nuke orain dela gutti argitaratutako "Los habitantes de la Atlántida, señor Daniken, y no los dioses" izeneko liburua. Irakurri ahal izan dudanez liburu hau best seller bihurtu da Grezian, bertan argitaratu baita, eta ez ninduke ha-

rrituko Europako txoko hauetatik ere gauza bera gertatzeak. Azken batez, ha- maika ikusteko jaio gara, ezta?

Autorea, Vassilis Paschos dugu. Eta berak dionez Atlantida gaurko Ozeano Atlantikoa estali zuen kontinente haundia zen. Honen aztarnak Bermudako triangulu famatuan, Portugal eta Madeira uhartearen artean eta Mediterranioko hainbat lekutan (Egeon, kasu) kokatu daitezke. J.A. 6.500 urtean gertatu zen hondeamendua eta salbatu zirenek kolonia batzu eraiki zituzten geratu ziren uharteetan, Egealdean metalea eta teknologia sartzen.

Liburuaren izenak berak teknologia sartu zutenak Atlantidako bizilagunak izan zirela adierazi nahi du, eta ez beste galaxietatik etorritako jendea, Erich Von Daniken autore suizoak defendatzen duen moduan.

Iskanbila hortxe dago. Ni neu, une honetan ez naiz gauza extraterrestreetaz aritzeko baina, hala ere, errespetagarriak

GAIK ZIENTZIA GAIK ZIENTZIA GAIK ZIENTZIA

iruditzen zaizkit Daniken-ek emandako frogak: azteken kultura, Peruko lurrartzeko pistak, Marokkon agertzen diren irudi arraroak, eta hainbeste lekutako kulturak, zeinek argi eta garbi adierazten duten aintzinako teknologiak lortu zuen maila izugarria.


Nork asmatu zuen teknologia hori?
Zer gertatu zen horreez gero?
Zer zela eta suntsitu zen zibilizazio hura?
.....?

Horretaz ez dago akordiorik horretara dedikatzen direnen artean. Baina Atlantidari dagokionez ba dago akordiorik, totala ez bada ere, zientzilarien artean; Atlantida gusto txarrako ipuina da. Kristauek behar zuten (eta oraindik behar dute) pieza bat beren puzzlea osatzeko. Giza-migrazioak frogatzeko. Baina migrazio hauek itsasoz izan zirela, eta ez lehorrez Kon Tiki, Ra eta beste expedio batzutan geratu zen frogatuta. Azken urte hauetan argituz joan da arazo hau. Orain nahiko landuta dagoen teoriak dionez, kontinenteak elkarretik mugitu egiten dira, ozeanoen eraketaren ondorioz. Lehen elkarrekin zeuden kontinenteak pieza bakarra osatzen, gaur deribatzen dugu. Honek explika diezaguke Hego Amerika eta Afrikaren arteko antzekotasuna eta horrela explika daiteke ere mendikate handien sorrera: Andesak, Himalaia, etab.

Baina, zelan formatzen dira ozeanoak?

Berba guttitan esanda horrela: hasiera batetan zartatune (fraktura) handi bat gertatzen da: dortsalea. Bertatik hasten dira materiale urtuak (mantokoak) irtezen zartatunea gero eta zabalago eta gero eta sakonago egiten den bitartean. Horrela bi aldeetako blokeak elkarretik separatzen dira. Ura sartu egiten da, ozeanoaren hasiera izanik. Dortsale hauek, lurrazalean, urpeko mendikate luze bat formatzen dute 50.000 kilometrotakoa. Hau izango ote da Paschos-en aztarna?

Elkarretiko mugimendu hori zentzu guztietan gertatzen da, hau da, plaka batzutan separatzen diren bitartean (Hego Amerika eta Afrika, kasu), beste batzutan elkarren kontra jotzen dute (Pazifikoko plaka eta Hego Amerika) mendikateak sortzen (Andesak).



Plakak elkarren artean jotzen dutenean fosak agertzen dira nondik, dortsaleetatik irteerako materiale sartzen den berriro lurbarnerantz oreka gordetuz. Ba liteke lurrazala pieza mugikorrez osoturiko puzzlea dela.

Elkarmugimendu honetan datza lurrikara eta bolkanen sorrera (plakaren kontornoetan aurkitzen dira gehien bat) eta ez biblian.

Teoria globala izanik hurrengo batetan arituko naiz horretaz.

Ez dakit artikulu honen bitartez zeozer argitu dudan, bai horrela balitz helburua lortuta legoke.

IÑAKI



"Cualquier ciudadano tiene derecho, además, a expresarse en los medios de comunicación"

G. Aresti

europar, etsipenaren aurka askatasuna

KEJA ETA URRIKIA

1) KEJA

Ez naiz kejaratu nire denporan.

Baina orain nire soinak lehen baino ahulagoak dira,

edo nire karga asturagoa da.

Eta kejacen naiz: Ene!

2) URRIKIA

Ez naiz urrikaldu nire denporan.

Baina orain ikusi ditut Arragoetatik Bilbozarrera soin ahuletako eta

karga astuneko gizon andre asko eta urrikalcen naiz: Zure!

GABRIEL ARESTI: "POEMAK (II). OBRA GUZTIAK (II)", 68. hor.

Arestiren poema hau hautatu dut, Europa zahar eta eztabaidakorra pixkanaka zeharribiliz doan korronte animikoaren agerpide gisa, burrukatzaile humanistengan "etsipena" eta desmobilizapena ereiten dituela aldi berean; egunoroko bi-ziune eta bizinguru guzietan askatasunaren alde arradikalki burrukatutakoak iragan hamarkadetan, bestalde. Geroenean, munduko sistima domeinatzailea, bai "sozialista" gaitzizena duen blokean (nola uler ote daitekeen askatasunik gabeko gizarte "kolektiboa", "guzi-guziena"), bai eufemismo barregarriaz "libre" deitutakoan (nola ote dagokeen askatasunik klase-bereizkeriaren eta orotan zehar hedatu beargorriaren artean), domeinu-tresnek iritsitako bilakapena eta perfekzioa, teknokrazia gidariaren menpe, hain dira txundigarri eta zapalgarri, non burrukatzailek sendoenak ikara baitira, beraiek hura ezagutu eta egunoro hari behar-beharrez ukituta.

Ba dakit Europa izan dela mugimendu erabat bestelakoen emagina, baina, hala ere, otso zahar askatasunaren maitatzailea bezala ikustea atsegin dut, otsaldearen buruzagi berriak oraino beldurdiona. Barbareriak, basakeriak, aurpegi bakarra du, baina bere ihardunbidea bi eskuetan dago: eskuinean eta ezkerrean...

Ukan ere, ba dugu inoizkorik garai eztabaidakorrena: bi sistimaren arteko erroa. Industri kapitalismoa, burjesa, hermeretzigarrenkoa, absolutismo feudalararen desegile eta ia-ia utopiarekiko mugaraino indar produktiboen bizkortzaile, utopia berau lehen orduko bere defendatzaile distiratsuenetarikoa aipatu eta kondaturik, Jules Verner buruzdiogu, eta egungo kapitalismo teknoburokratiko, beronen aurretikoak burutu baino ere irismen handiagoko iraultza baten dinamizatzaile. Beraren kostu sozialak eta etorkizunaren bahiturak, mingostasunez eta zalantzasun sakonez baino bestez ezin bete gaituzte, humanismo libertaria hitz soil baino zerbait gehiagotzat dugun guziok, beraren ihardunbide eta perspektibei dagokienaz bezainbatean.

Luis Maria Ansonen, Estatu espainolean TRILATERALaren gizon nabarmena, arestian zera zioen: "La libertad de expresión se nutre sustancialmente de la información periódica, plural, completa y veraz..."; "Cualquier ciudadano tiene derecho, además, a expresarse en los medios de comunicación" (1). Hau hitz-jarioa, agintearen estamentuek daramaten aurkako praktikaren zuloak betetzearren! Bai kontraesana honen eta Batzorde Trilateral beraren baieztapen artean, komunikabide espainoletan hura bera ordezkatzailerik dalarik, azken honek

**EL CORREO
ESPAÑOL**
EL PUEBLO VASCO

LA GACETA DEL NORTE

DE LA

HOJA
DEL
LUNES

DIARIO DE LA
VIERNES
egun

agintearen arazoei buruz informakuntza-
ren eta beronetako argitasunaren beldur
dela dioenean!

Ari ere, Europa azken hamarkadetan
ematen ari da hiritar eta langile mugimendu sail ederra eta, urratsez urrats, ba doaz kontinente honetako mugimendu progresista zaharraren lekua hartuz, askatasunaren aldeztapenari eta gizarte-riaren eskubide osoen gehikuntzari dago-
kienean.

"Autonomia" deitutakoaren arlo so-
ciokultural eta politikoaren egungo euro-
par mugimenduak konprenitzen saiatze-

ko, hark berak hain arradikalkiro de-
mokrazia zuzena eta autoerakuntza
(erantzukizun eta ihardupen kolektiboak,
eginkizun konkretuetarako kontrolatuta-
ko ordezkapenarekin batera), defendat-
zen dituelarik, zenbait ezaupide gogoan
eduki beharra dugu:

1) Munduko 2. Gudutik honakoan, kolek-
tibo aitzindari eta mugimendu sozial
aniztasun demokratiko eta ekintza-
batasunaren agerpenak.

2) Munduko 2. Gudurainoko industri ka-
pitalismoaren garapenean parte hartu
zuten ideologiek, erlijioek, teoria ekono-
miko eta politikoek sorterazitako dezep-
zioa.

3) Kolektiboen eta intelektualen, hala no-
la mugimendu iraultzaile politikoki
kontrolatu gabeen eragin teorikoa; mar-
xismo eta anarkismo historikoeiko haus-
tura kritiko edo jarrera heterodoxoaz, gi-
zakirik gehienetan burutu beharreko ko-
munismo gizatiar askatzaile berriaren
oinarriak zirrimarratzen saiatu direnak
beraiek.

4) Hiritarrik gehien anaitasun, berdin-
tasun eta askatasun nahien aurrean,
izan ere, "bene-benetan diren" kapitalis-
moaren eta sozialismoaren ihardunbide-
en porrota, guzoi doakigun erantzukizun
kolektiboari begira, absertismo haz-
korra, gorakorra sorteraziz sorteraziz
dona. Gertaeren soslaia, gizateriarentzat
hil ala biziko erabakiak hartzearen pri-
batizazioa (gizartearen militarkuntza,
energia nuklearra, zapalkuntzaren heda-
kuntza, gehiengoaren gosea, eta...), eta
abar luze luze, "nitasunaren" garrantzi
animiko, indibidual eta ezin inorenga-
natuzkoak gaindurik, iraultza teknikoak
bilakapen arinagoan, gutarik bakoitzaren
kultur eta norbere barneko inguru-
nuarena berarena baino, ezartzen duen
mundu baten erabateko krisiaren aurre-
an.

Ba daiteke, ibilbide kolektiboaren buka-
eran, gure Historiaren etapa labur hon-
tan, ez garaile ez garaiturik geratzea...

Planeta bakarrik, giza harremanen "ro-
botizazioak" garaitua, lehen "giza-
tiarrak", gorokan "robotiarrak", mun-
duko balizkako gudu nuklearrik gabe,
batzuren eta besteren etorkizunaren he-
riotzea ekar baitezakete...

Espero dukegu zuhurtasunak eta ongi
egiteak egungo eguneko elkarroldartze
dialektikoaren bataila garait ahal deza-
ketela, humanismo askatzailearen alde.

(1) "Por un estatuto de la profesión
periodística"; El País, 8-2-80

Mikel-"Tar"
M. Aldanak itzulia



POZTAZ ETORRIAZ

Kaixo.

Zenbait ohar egin nahi nituzke, gaueskoletan erabiltzen dugun euskara dela eta.

Lehena, entonazioarena. Nik dakidala, Euskal Herriko lekurik gehienetan, euskarazko klasetan erabiltzen dugunaren guztiz aurkakoa da. Eta hori zuzenki da, ene ustez, euskal entonazio jatorra. Horretaz, —eta horrela ez bada, argitua izan bedi—, zera proposatzen dut:

gú ikásleák gará

entónatzea, eta ez hain sari entzuten dugun:

gú ikásleák gára.

eta halaber:

gizónák kaléán daudé

eta ez

gizónak kaléan daúde...

2.a, "ahal" partikulaz. Oinarrizko euskaran horrelako esaldiak indartzen ari gara: gaur klasera joan ahal dugu. lan hori egin ahal dugu.

Gipuzkoan behintzat, eta pentsatzen dut beste leku askotan ere horrela dela, honek "belarriko mina" ematen digu. Eta entzuna dut, euskara jatorrean ez dagoela horrelakorik —ea zuok argitzen duzuen—. Nire ustez, bidea bestelakoa da.

Lehenengoz, potentzialak ez baztertu, eta gehiago indartu. Hala ere, eta lehen mailetan berak ematea ezinezkoa denez, "ahal" partikula erabili, baina lekurik kanpo dagoen heinean, behinbehinekotzat harturik, eta beraz, hitzegiteko behararen arauera, eta ez lantze berezi baten prozesuan. Eta honen erabilkeraz, egokiagoa ondokoa dela pentsatzen dut:

gaur, ahal dut klasera joan

ahal dugu lan hori egin

Eta era berean:

bihar joan ahal izango dut.

"behar" partikularen antzera, nolabait.

Hala ere, galde gaia arazoa sortzen da. Ni baino egokiagoren bati, hauk guztiauk argi zitzala eskatuko nioke:

"Ahal" partikulak "ukan" dakar halabeharrez? Potentzialezko esaldietan galdegaiaren teoria egokia al da?

3.ez, nominalizazioak. Honetaz ezer gutxi aurkitzen da; sistematizazio onik ez dakit bat ere ote dagoen. Eta hontan galdua aurkitu izan naiz ni, klasea ematerakoan. Premiazkoa deritzot nominalizazioen sistematizazio gramatikal eta didaktikoari.


Azkenez, beste galderatxo batzu:

"hori achantzi zait", ala "horretaz achantzi naiz"? "ez nintzen gogoratzen" hori egin behar nuenik" eta horrelakoak ongi al daude? —"gogoratu" aditzak ZERTAZ eskatzen du, eta ez ZER baina konpletibo horrek zeri erantzuten dio, ezta?—.

"bere-beraren" dela eta, Anaitasunen bertan agertu zen erabilkera, eta Hitzegin metodoak proposatzen duena desberdinak dira. Zeini jarraiki?

Barka luzatasunagatik, baina zailena eginez gero —hastea—... ezin bukatu. eta ea guztion onerako hauk guztiauk argitzen diren.

I. Lasa
Bilbon, Otsailaren 9a.



1980go Urtarrilaren 19an

Adixkideok,

Guk iparraldeko nahi ginituzke nafarkarreko loka-karriak izan litezen gotorrago eta azkarrago. Mende berri delako elkargo kulturean ari gara. Elkargo horrek euskara ikasteari buruz dihardu; euskara, euskaldunon mintzabidea izan dakigun, egifahalak ere dakigkigu. Gure xede beharrezkoena da, euskaldunon batasuna; horregatik elkar ezagutu behar dugu, zuek hona etorri eta gu hara joanez, gogaide garenaz geroz alde batetik eta bertetik euskaldunetasunaren arazo berberak dauzkagula-koz. Bai eta ere bazterkatuak gaudelakotz zuek bezala Moncloako estatututik. Zuei gaude zeren orain arte ez dugu inondikan ere, den ihardespenik xumeena ukan.

Geure kerako elkarte kulturalen helbideak igor badiezakiguzue, pozez gainditurik dukegu bihotza, zeren honela hobeki sar gaitetze harremanetan zuekin.

Zuengandikako ihardespen on baten aiduru gaude.

Aintzinetik milesker

Mende Berri
31 Lagrèon Karrika.
Baiona 64 100

Orain aste batzu delarik, PNV-EAJ-k bere sortzailearen jaiotegunaren urtemuga ospatu zuen. Denok dakigu nor zen, "Arana Goiritar Sabin".

Baina ene uste apalez, Arana Goirik PNV-EAJ delakoak sortu bazuen ere, halaber euskal abertzaletasunaren aita ere ba zen. Nolakotasunik gabeko abertzaletasuna, bai, harengandik aberriaren aldeko asmo eta ideia guztiak eratorriak bait ditugu. Abertzale delatuta horri, geroago, izen ugari ipini bide dizkiogu, zera, "sozialista", "iraultzailea", etab. Nik uste, inork ezin du uka, Arana Goiritar ekin aldirarte, Txaho eta besteren bat, baina gure zoritxarrez, argi izpiak baino ez dira, gau luze baten ilunpetan.

Horregatik, ezker abertzaleen isiltasuna, urtehurrenaren aurrean, ezin dut ondu ulertu. Arana Goiri gure kondairaren beste pertsonaia dugu Nafarroako erregeak eta Zumalakarregi bezalakoak. Ni ez naiz ez karlista ez monarkiazalea, baina benetan sinesten dut,



geure erregeak eta jeneral karlistak gure herriaren lekuko eta gure kondairaren sortzaileak ditugula. Oraingoan ez dago PNV-EAJidea izateko beharrik, Arana Goiriren ekintza gure herriaren atzealdian, eta behar den lekuan, ipintzeko. Bestela, gure kondaira ukatzea izango litzazuke, eta kondairarik gabeko herriek ez dute etorkizunik.

Lerro hauen bidez, ezker abertzaleari ideia hauxe jaurtiki nahi diot, Arana Goiriren irudia geuretzeko, beste Historiaren pertsonaien antzera, eta halaber, PNV-EAJri bere monopolioa bukatzeko. Sabino guztionan izan behar da, ez alderdi batena. Eta gaurdaino horrelaxe gertatu bazaigu, geurea dugu errua, Sabinoen burjes jatorriaz lotsatu izan bait gara, bakoitza bere aldiko semea dela ahaztuaz.

Ederki jaiok izango ginateke, Axular, Leizarraga eta beste askoren euskal liburuak sutara botako bagenu, eleizgizonak eta klerikalistak izan zirelako atxakiaz! Ez errusoek ez txinoek ez diote beren kondairari uko egiten, baina honetan ere, Euskadi is different, eta bartzuren eritziz Historiari tranpa eginez konpon dezakegu geure geroaldi larria.

Ea ba, datorrenean, lotsarik eta beldurrik gabe, Arana Goiriren egunak ospatzen ditugun. Baina, geure erara alegia!

Bengoetxea-tar Jon Ander

anaitasuna

HARPIDEDUNA!

Gurekiko harreman guztietarako aipaiezaziguzu, zure zenbakia.

**BIZKAIA
HAMABOSTEROKOA**

URTEKO ABONAMENDUA:

EUSKAL HERRIA:	1.200	pezeta	/75	F.F.
ESPAINIA eta FRANTZIA:	1.500	"	/93	"
EUROPA eta AMERIKA:	1.600	"	/23	U.S. d.
Beste herri guztiak:	1.700	"	/25	U.S. d.

ALDIZKARI hau IRAKURRI NAHI baduzu, bete ezazu argi, ondoko txartela eta bidal helbide honetara:

ANAITASUNA

ZABALBIDE 68., BILBO-6

POSTA KAXA : 495

Tfno. bakarra: 94-4335808

Izen deiturak.....

Bizilekua.....

Herria eta Posta Barrutia.....

Barkua eta kontu irekia.....**Tfnoa**.....

AKROSTIKA 1: OSAPENA

KOLDO MITXELENA: BAROJA HIL ONDOAN

Euskal idazleoi ere eskaintzen digu zer-bait Barojak. Gure lurraldea inor gutxi bezala ikusi du, aurrenik: Pierre Loti eta, beste gisara, Lizardi kenduz gero, nor al-dera lekiok? Orrialde luzeetan eman digu maitekiro gure lurbarren eta itsasal-dearen irudia, hain zehatz eta bizia.

- | | |
|-------------------|----------------------|
| A. Kumeak. | Ñ. Adostu. |
| B. Ondare. | O. Renteria. |
| C. Luzaide. | P. Ostadar. |
| D. Durdurak. | Q. Jeltzale. |
| E. Olite. | R. Adiezin. |
| F. Miarritze. | S. Herkidea. |
| G. Ipurbeltz. | T. Ideki. |
| H. Teste. | TS. Legez. |
| I. Txirula. | TT. Oskilatu. |
| J. Enrike Zelaia. | TX. Nokizerdi. |
| K. Lauburu. | TZ. Donibane Garazi. |
| L. Elebitasun. | U. Osasunbelar. |
| LL. Nekazaria. | V. Arrigorriaga. |
| M. Akelarre. | W. Negutegi. |
| N. Behigorri. | |

1	A	Z	B	3	C	4	D	5	G	6	H	7	I		B	K	9	LL	10	M	11	N	12	Ñ	13	P	14	Q		15	R	16	TZ				
		17	TT	18	A	19	E	20	F			21	G	22	J	23	N	24	Ñ	25	O	26	P	27	R		28	P	29	Q		30	R	31	S		
32	C	33	D	34	G			35	H	36	J	37	LL		38	E	39	H	40	J	41	M	42	Ñ	43	Q	44	R	45	S		46	T				
47	TS	48	TT	49	C	50	F	51	Ñ	52	O	53	P	54	K	55	TX			56	B	57	H	58	J	59	L	60	A	61	Ñ	62	P	63	S		
		64	T	65	TX	66	TX	67	B	68	J	69	M	70	Ñ			71	TS	72	TT	73	TX	74	E	75	11	76	I	77	Ñ		78	O			
79	R	80	L	81	M	82	N	83	Ñ			84	TT	85	TX	86	A			87	K	88	LL	89	N	90	Q	91	TT	92	TV	93	E	94	H		
95	J	96	L	97	P	98	A			99	G	100	K	101	L	102	P	103	Q	104	T	105	TX	106	A	107	C	108	LL		109	M	110	S			
111	L	112	N	113	O	114	P			115	Q	116	LL	117	M	118	Q	119	TT	120	B	121	D			122	G	123	H	124	K	125	M	126	B		
127	E			128	H	129	R	130	C	131	D	132	N	133	Ñ	134	F			135	G	136	H	137	TX	138	C	139	E	140	I		141	LL			
142	R	143	T	144	TX	145	B	146	K	147	A	148	C	149	D			150	E	151	F	152	TX	153	TT	154	E	155	G		156	A	157	J			
158	K	159	LL		160	D	161	TX	162	LL	163	TX	164	D			165	P	166	S			167	L	168	H		169	G	170	Ñ		171	E			
172	TX	173	P	174	R	175	C	176	LL	177	J	178	D			179	I	180	LL	181	G	182	N	183	TT	184	T			185	TX	186	A	187	P		
188	LL	189	B	190	H	191	G			192	J	193	L	194	G	195	C	196	E	197	D	198	S			199	P	200	K	201	J	202	J	203	LL		
		204	N	205	R	206	TT	207	H			208	J	209	T	210	O	211	TS	212	Ñ	213	P	214	TX												

- | | | |
|-----|---|---|
| A. | Frantses iraultzaile. | 156 86 98 347 1 18 104 165 |
| B. | Garia ebakita gero, soroan dagoena. | 120 126 67 2 145 56 189 |
| C. | Euskal abere mythiko. | 107 148 175 3 49 138 32 195 130 |
| D. | Personaltasun | 178 149 4 131 33 164 197 121 |
| E. | Kantuan, hemengo jaunaren emazteak:
"Ama, saldu naizu biga bat bezala" | 127 154 38 93 19 74 139 171 196 190 |
| F. | Hitler edo Goebbels, adibidez | 134 20 151 50 |
| G. | Ducados non erosten dituzun. | 181 135 169 155 34 5 99 21 194 122 191 |
| H. | 79 urte baino gehiago dituztenak | 39 190 94 75 128 35 377 123 136 57 168 6 |
| I. | Gose ez den | 140 7 76 179 201 |
| J. | Udazkeneko landare-hiltzaile (2 hitz) | 68 22 157 36 95 208 177 40 58 192 |
| K. | Ogia erosten daneko denda | 200 158 87 124 8 54 146 100 |
| L. | Eguraldi berotako bizileku | 99 167 96 101 70 193 |
| LL. | "Euskal alfabetatzearen aita"
(izen osoa; 2 hitz) | 176 111 108 9 180 141 159 37 68 105 203 162 116 |
| M. | Ez beti | 109 41 37 60 81 125 109 16 |
| N. | Zeruko Argiaren indiarra
(hitz elkartua) | 182 82 204 132 23 89 11 112 |
| Ñ. | Amorioak | 91 24 12 61 77 160 42 133 212 170 63 70 |
| O. | Handi ez den (bariante) | 25 52 78 216 113 |
| P. | Jeneral karlista | 33 162 28 13 173 26 114 97 187 213 62 199 125 |
| Q. | Badaezpadako. | 90 118 115 29 103 14 43 |
| R. | Erromatar ubide | 44 27 129 15 174 142 30 79 205 |
| S. | Greziar mythologian, iturri-nymphak. | 63 110 31 166 202 198 45 |
| T. | Gerra erdiko bake laburra | 104 143 46 64 184 209 |
| TS. | Igelaren ume. | 18 144 152 211 71 65 47 183 |
| TT. | Lotsabako | 48 17 206 91 119 153 185 84 183 72 |
| TX. | "— noazu bertso bat edo bi..." | 92 161 55 85 172 137 68 105 73 214 |

Bizkaiak beti izango du bere Kutxa



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA



BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA

Laguntza handi bat



Gure herriaren nahi eta izpirituaren arauera dihardugu

Horrexegatik, hain zuzen, Gipuzkoako 100.000 familiatik gora gutaz fidatzen dira.

Gipuzkoan bizi diren familia guzientzat, soluziobide aproposak sortzen ditugu beren Aurrezki, Kreditu, premiak... etab. konpontzeko.

Gure herriaren nahi eta izpirituarekin zerikusi estua duten hainbat ekintza ere burutzen dugu. Horrela, gure lurralde

honetako kultur, folklore eta kirol adierazpenetan parte hartzen dugu; euskal kulturaren aldeko ekintzak bultzatu eta babesten ditugu (liburu argitalpenak, literatur txapelketak, margolaritza txapelketak, kontzertuak eta koralak, hitzaldiak eta kultur asteak...) eta Euskal

Hiztegi Arauemailearen argitalpena bezelako proiektu garrantzitsuak burutzen ditugu.



**LA CAJA TRABAJA POR GUIPUZCOA
Y PARA LOS GUIPUZCOANOS.**



**CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA
GIPUZKOAKO AURREZKI KUTXA PROBINTZIALA**